goiena"

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-05-04
EGUBAKOITZA
507. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM



ENEKO AZKARATE

**Julian Iantzi** | Telebistako aurkezlea

# "Dena zor diot euskarari: jendea ezagutu, bidaiatu..."

Aurkezleak ia galdu egin zuen euskara umetan | 8

Ipuin laburren sari nagusia Iñaki Goitia filosofia ikaslearendako | 13



Bidegorrietako bidaien %80 oinez egiten dira oraindik | 2



Trikiti eta panderoak bor-bor Eskoriatzan, Trikitixa Egunean | 24



# MINERALAK EZAGUTZEKO JOLASA, OÑATIKO DENDETAKO ERAKUSLEIHOETAN

33 mineral jarri dituzte dendetako erakusleihoetan, eta haien inguruko galderak erantzutea proposatu dute Arrikrutz-Oñati kobek eta herriko Txanda elkarteak. | 10

Sua bitxigintza dendako Rosa Igartua, erakusleihoan duen minerala erakusten. | OIHANA ELORTZA

## Kiroldegiaren adjudikazioa: nahasmena Aretxabaletan

Momentuz EAJk bakarrik eman ditu azalpenak | 14



Kiroldegi berria. | MIRARI ALTUBE

## Ford Mugarrik igoera fasea jokatuko du Gijonen

Lehen Nazional mailara igotzeko fase erabakigarria da | 21

## Eskoriatzak lauko finala jokatuko du asteburuan | 23

## SINADURAK



'Rearme' ideologikoa | 6
ANDONI URZELAI



18 | Non dira urte eder haiek?
ANTONIO DEOGRACIAS



Oraingoan pertsonaletik | 32
AGURNE BARRUSO

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 10 | KIROLA 23 | KULTURA 24 | ZURE IRAGARKIAK 27 | TELEBISTA-IRRATIA 28 | ESKELAK 28 | EZKONTZAK 29 | NON-ZER 30



# Oinez egiten dira oraindik ibarreko bidegorrietako bidaien %80

▸ Iazko erabileraren gaineko txostena egin dute

▸ Gipuzkoan %15 erabiltzaile gehiago izan dira

▸ Bizikletaz gehiago erabil daitezen nahi du Aldundiak



Antzuolako bidegorriak 58.300 erabiltzaile baino gehiago izan zituen iaz. Argazkian, bi

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Debagoieneko bidegorri sarearen zati gehiena egin barik dago, baina egindako tramuak gero eta gehiago erabiltzen dira. Halaxe erakusten du Gipuzkoako Bizikletaren Behatokiak argitaratu duen 2011ko erabileraren gaineko txostenak. Biziker kontsultorak behatokiarendako egindako memoria horrek Gipuzkoan eraikitako 16 bizikleta-bide baloratu zituen eta haien gaineko galderak egin zizkion jendeari. Lagin horretan zeuden Debagoieneko hiru tarte: Soraluze-Bergara, Eskoriatza-Aretxabaleta eta Antzuola-Bergara.

Bilduko agintariek bultzada berria eman nahi diete bidegorriei, eta, batez ere, egunero leku batetik bestera mugitzeko aukera gisa promozionatu eta ahalbidetu nahi dute: eguneroko beharretarako, lanera edo eskolara joateko… bidegorriak erabil daitezen nahi du. Oraindik horretarako erabiltzea ez da joera nagusia.

2011ko memoriak datu hauek ematen ditu: Bizikleta Bideen Foru Sareko bideetan, 3.400.000 joan-etorri inguru egin zituzten herritarrek iaz; horietatik hiru laurdenak (2,5 milioi) oinez, eta beste laurdenak, bizikletaz. Bi erabilera motak handitu ziren baina, aurreko urteetan ez bezala, bizikletako erabilera oinezkoa baino gehiago hazi zen. "Horrek erakusten du gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari dela, pixkanaka", esaten du Behatokiak. Zehazki, 2010ean baino %15 erabiltzaile gehiago izan zituzten bidegorriek; txirrindulariak %16 gehiago izan ziren, eta oinezkoak, %14 gehiago.

Bizikletaz egindako 10 bidaiatik sei aisialdirako edo kirolerako ziren, eta beste lauak, "derrigorrezko mugikortasunak eragindakoak, hau da, lana, ikasketak edo gestioak direla-eta eginak", esaten du txostenak. Oinezkoen artean, kopuru hori askoz txikiagoa da: bidaien %6 bakarrik izan ziren arrazoi horiengatik egindakoak.

Hain zuzen, bidegorriak lanera joateko ere erabil daitezen laguntzeko, Mugikortasuneko Departamentuak plan pilotu bat egiteko asmoa du, eta horretarako aukeratutako tramu bat Arrasate-Eskoriatza da. Mugikortasuneko Departamentuaren esanetan, enpresa bat azterketa egiten dabil eta, oraindik ez dutenez bukatu, ezin da asmo zehatzagorik aurreratu.

**Erabiliena, Soraluze-Bergara**

Iazko memoria egiteko ebaluatu diren 16 tramuak gehien erabiltzen direnetatik gutxien erabiltzen direnetara sailkatu ditu Bizikerrek. Aintzat hartutako Debagoieneko hiru tramuek antzera erabili ziren iaz: bizikletaz egindako bidaiak Gipuzkoako batez bestekoaren (bidaien %25) azpitik daude, eta, ondorioz, oinezkoena, batez bestekotik gora. Bestalde, zenbat erabiltzaile izan dituen hartuta, Gipuzkoako 16 tramuak lau multzotan banatzen ditu memoriak. Gehien erabiltzen direnen multzoan ez dago Debagoieneko bat ere. Debagoienean, iaz tramu erabiliena Soraluze-Bergara izan zen: 228.739 erabiltzaile izan zituen, horietatik %82, oinezkoak. Bigarrena Eskoriatza-Aretxabaleta izan zen, inauguratu zenetik, maiatzetik, 142.121 bidaiarirekin (%77, oinezkoak); eta Gipuzkoako 16 tramuetatik gutxien erabili zena Antzuola-Bergara izan zen, 58.322 erabiltzailerekin (%84, oinezkoak).

Txirrindularien eta oinez dabiltzanen arteko proportzioa bestelakoa da beste tramu batzuetan: hala, Endarlatsako tramuan, txirrindulariak izan ziren bidaiarien %60; Tolosa-Alegian, %41; Astigarraga-Martutenen eta Zumarraga-Azkoitian, %36. Edozein modutan, "txirrindulari proportzioak gora egin du bide gehienetan 2008ko urteaz geroztik; orduan txirrindulariak %22 ziren, 2011n baino hiru puntu gutxiago, hain zuzen", azpimarratzen du memoriak. Aipatzen du, ere, bide-tarte batzuk mistoak direla, eta motordun ibilgailuekin konpartitzen dutela espazioa.

Urteko sasoiaren arabera, asko aldatu da bateko edo besteko erabiltzaileen proportzioa: hala, txirrindulari gehien apiriletik urrira izan ziren, eta gehien, abuztuan (%33).

**Bizikletaz, %39 gehiago**

Aztertutako tramu bakoitzaren gaineko datuak ematen ditu Bizikletaren Behatokiak.

Soraluze-Mekolalde (Bergara) bideak "oso eginkizun garrantzitsua betetzen du Soraluzeko herrigunearen eremu berde gisa", eta "herritar askok erabiltzen dute paseorako". Berezitasun bat: "bide gehienetan ez bezala, lanegunetan handiagoa da erabilera". Egunean 600 erabiltzaile izan zituen iaz.

Orain dela gutxi Mekolaldera luzatu izanak "lanagatiko bizikleta-erabilera bultzatu" duela esaten du Behatokiak. "2010ean egindako asfaltatze eta argiztatze lanek ere eragin positiboa izan dute", gaineratzen du.

Iaz %9 bidaia gehiago izan ziren tramu horretan 2010ean baino. Gainera, bizikletazko %39 bidaia gehiago izan ziren; oinez-

## Non gauden jakiteko…

**Zedarriak ipintzen dabil, udazkenetik, Foru Aldundia eraikita dauden 91 kilometroetan. 500 metrotik 500 metrora ipiniko ditu, erabiltzaileek uneoro jakin dezaten zein kilometro puntuan dauden.**

**Bizikleta Bideen Sareak 439 kilometro izango ditu, eta 287 Gipuzkoako Foru Aldundiari dagozkio. Helburua da zedarriak sare osoan ipintzea.**



Zedarria. | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

COPRECI
COPRECI, KOOP. ELK.

**2012ko OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIA**

Kontseilu Errektorearen erabakiz, Elkartearen Ohiko Batzar Orokorrera deitzen da. Batzarra, **Eskoriatzako Kiroldegian**, egingo da 2012ko maiatzaren 11n, arratsaldeko 3 t'erdietan lehen deia eta, kasua balitz, bigarrenean, 4etan, egun eta toki berean, hurrengo eguneko gai zerrendaren arabera:

**GAI ZERRENDA**

1. Aktak onartzeari buruzko informea eta akordioa.
2. Memoria irakurtzea eta onartzea.
   2.1. 2011ko Gestioari buruzko akordioa.
   2.2. 2012ko Gestio Plana onartzea.
3. Mondragon Componentes eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
4. 2011ko Kontuen eta Balantzeen azterketa.
5. 2011ko Emaitzen banaketa.
6. Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
7. 2012 ekitaldirako lan Aurrerakinen inguruko erabakiak.
8. 2002ko Borondatezko Ekarpenen Jaulkipena luzatzea.
9. Entitateen gaiak.
   9.1. Mondragon.
   9.2. Euskadiko Kutxa.
   9.3. Lagun-Aro.
10. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak.
11. Kanpoko Auditoreak izendatzea.
12. Fagor eta Mondragon Componenteseko Batzar Orrokorretarako ordezkarien hautapena.
13. Galderak eta eskaerak.

Kontseilu Errektoreko Idazkaria
Aretxabaleta, 2012ko apirilaren 20an



oinezko. | USOA AGIRRE

## Oñati-Arrasate, "lehentasuna" Aldundiarendako

Oñati eta Arrasate bidegorriz lotzeari garrantzia eman dio Mugikortasun sailak. Aurreko agintaldian, Foru Aldundiak lehentasuna eman zion Oñati-Zubillaga tramuari, Epele-Oñati proiektuaren barruan. Oñati-Zubillaga zatiaren obrak aurrera doaz, 1,9 milioiko aurrekontuarekin. 3,9 km luze eta 3,5 km zabal izango da, eta, zati batzuetan, motordun ibilgailuak ere ibili ahal izango dira.

Hori egin eta gero, Zubillaga-Elorregi-Epele tartea geratuko da, 4,04 kilometrokoa. Aurtengo aurrekontuetan sartuta dago, 1,9 milioirekin, eta Aldundiaren planetan lehentasuna du. Behin esleituta, zortzi hilabeteko lanak aurreikusten dira.

### DATUAK

**%25**

BIDAIA

Iaz bidegorrietan egindako bidaien %25 bizikletaz izan ziren Gipuzkoan. Gehiago izatea nahi du Aldundiak.

**%40**

NAHITAEZKO BIDAIA

Iaz bizikletan egindako bidaietatik %40 eguneko betebeharrengatik izan ziren (lana, gestioak...).

**%29**

TXIRRINDULARI

Eguneroko ziklistetatik %29k joan-etorri bera autoz egingo lukete, bidegorririk ez balitz.



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

**UNAI ERROITZENEA**
MUGIKORTASUN ZUZEN.

## "Bidegorrien mantenuan ere aurrezteko modua topatu dugu"

Bilduk Aldundiko departamentuak moldatu ditu, eta bidegorriak Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuaren mende daude orain. Unai Erroitzenea da bidegorrien arduraduna.

**Ze garrantzi ematen diezue bidegorriei?**

Aldundiarentzat bidegorriak mugikortasun arloko elementu garrantzitsua dira. Horregatik, bidegorriak eraikitzeari lehentasuna emango dio. Krisia larria da, Aldundiaren egoera ekonomikoa txarra, baina erakunde honek argi du beste eredu bat bultzatzeko garaia dela, eta bidegorriak eredu horren osagai dira.

**Zertarako erabili nahi dira bidegorriak?**

Bizikleta gehiago erabiltzeko tresna egokiak eman behar dizkiegu herritarrei eta horien artean garrantzitsuena eguneroko lantokira, ikastetxera, kiroldegira... joan ahal izateko bidegorriak egitea da. Azpimarratzekoa da ere bidegorrien mantenuan eta aurrezteko bidea topatu dugula, Bide Azpiegitura Departamentuaren bidez egingo baita, errepideak artatzen dituzten bezalaxe.




Webgunearen irudi bat. | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA/IÑAKI ITURBE

## Gipuzkoa, Interneten ere 'bizikletaz'

Bizikleta bidezko garraioari eta bidegorriei eman gura dien garrantziarekin lotuta, *www.gipuzkoabizikletaz.net* webgunea elikatzen dihardu Foru Aldundia. Horko Bidegorriak Bistaratzeko Pantailan, erabiltzaileek zehatz jakin dezakete zein bide dauden eginda eta non hasten eta non bukatzen diren, edo katalogo eguneratua jaitsi, adibidez. Bizikletaren inguruko denetariko albisteak, trikimailuak, artikuluak... ere batzen ditu.

koak, %5 gehiago. Eguneroko txirrindulariak %21 dira; %12 lanagatik eta %9 gestioengatik.

Eskoriatza-Aretxabaleta tramuak 3 kilometro ditu, eta 500 inguru erabiltzaile egunean. Batez ere aisialdirako erabiltzen da; baina, Mugikortasuneko Departamentuak azpimarratzen duenez, "potentzial handia du" lanera eta eskolara joan-etorriak egiteko.

Iaz, 142.000 bidaia izan ziren tramu horretan; %77, oinez. Eguneroko txirrindulariak %15 dira (%9 lanagatik, %2 ikasketengatik eta %4 gestioengatik).

Azkenik, Antzuola-Bergara tramua baloratzen du Bizikletaren Behatokiak. 1,5 kilometro luze da, eta Antzuolako herrigunea eta Matz Errekako industrialdea lotzen ditu. "Antzuolako hainbat oinezko eta txirrindulari joaten dira bertara egunero lanera", esaten du txostenak. Bideak Uzarragara jarraitzen du. Txostenak faltan igartzen du "Bergarako herrigunearekin lotzea"; lan hori egiteko dago.

Iaz egindako bidaia guztietatik (58.000) gehienak (%84) oinez izan ziren, baina "bizikletak gero eta presentzia handiagoa" duela nabarmentzen du Behatokiak.

**"Ondo" edo "oso ondo"**

Gipuzkoako bidegorriak erabili zituzten 276 txirrindulariri galdetuta, %87k "ondo" edo "oso ondo" baloratu zuten sarea, eta %7k defektuak aipatu zituzten. Hala, %19k bidea hobeto konektatu beharra ikusi zuten; %9 txirrindulariek eta oinezkoek edo animaliek batera erabiltzeak sortutako arazoez kexu ziren; eta %5ek garbitasun edo mantenu gabeziak aipatu zituzten.



# UNED-Bergarak 28 ikastaro egingo ditu udan

Bost arlo landuko dituzte eta ekainaren 13tik uztailaren 5era arte izango dira

M.B. | BERGARA

UNED-Bergarak XI. Udako Ikastaroak aurkeztu ditu. Askotariko diziplinak landuko dituzte 28 ikastarotan. Bost arlotan banatu dituzte: *Giza eta gizarte-zientziak*; *Linguistika eta literatura*; *Hezkuntza eta psikologia*; *Zientzia eta teknologia*; eta aurtengo berrikuntza, *Osasuna*.

Udako Ikastaroak ekainaren 13tik uztailaren 5era arte egingo dituzte, eta izena emateko epea zabalik dago. Interesatuek hilaren 26a baino lehen eman behar dute izena *info@bergara.uned.es* helbidean edo 953 76 90 33 telefonoan. Udako Ikastaroen informazio osoa *www.unes.es/ca-bergara* atarian ipini dute.

Atzoko aurkezpen ekitaldian egon ziren Kutxa Fundazioko kolaborazioen saileko arduradun Mikel Mendarte; Iñaki Espartza, UNED-Bergarako zuzendaria; eta Amador Fernandez, Udako Ikastaroen zuzendaria.

**"Sendotuz doa"**

Profesionalei etengabeko formazioa emateko eta, era berean, lan aukera berriei atea zabaltzen dien formazio osagarri hori "urteroko hitzordu moduan sendotu da, formakuntza eta jakin-nahi kulturalak asetzeko", esan zuten aurkezpenean Udako Ikastaroen arduradunak.

Iraupen laburreko –bi, hiru eta lau egunekoak– aurrez aurreko ikastaroen hizlariak UNED-Bergarako irakasleak dira. Era berean, landuko dituzten materiekin lotutako erakundeetako profesional eta adituak izango dira.

## Apiril euritsuaren ondoren, maiatza "polita eta dotorea" izango dela diote adituek

M.B. | ARRASATE

Apiril euritsuaren ondoren, maiatza "polita eta dotorea" izango dela diote adituek. Pello Zabalaren esanetan, maiatzaren 1eko eguraldiaren tankera izango du hil osoak: "Ostarte eta urdingune zabalekin, nahiz eta euri zaparradak ere botako dituen, han-hemenka", dio.

**269 litro metro koadroko**

Apirilari dagokionez, hiru egunean izan ezik gainerako guztietan egin du euria. Hori horrela, urtegiak beteta daude. Zabalak emandako datuen arabera, aurtengo apirila azken 46 urteotako bederatzigarren euritsuena izan da: 269 litro batu dituzte metro koadroko.



Korrikalari taldeak iazko Berdintxiketan proban, Kale Zaharrerako bidean. | JULIO CALLEJA

# Berdintasuna aldarrikatzeko korrika egingo dute Oñatin hilaren 11n

Enpresagintzak antolatuta lasterketa mistoa egingo dute kalerik kale; bost kilometroko ibilbidea prestatu dute eta izena emateko epea zabalik dago

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Berdintasuna sustatze aldera, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak Berdintxiketan berdintasunaren aldeko II. lasterketa mistoa egingo du Oñatin. Egubakoitzean izango da, maiatzaren 11n, 19:30ean. Eta izena emateko epea zabalik dago: aldez aurretik egin daiteke *google.com/site/bikotemistoenlasterketa/izenematea* helbidean, edo, lasterketaren egunean bertan, irteera puntuan. Bada, bikoteek 10 euro ordaindu behar dituzte eta bakarka korrika egiten dutenek, berriz, bost euro.

Iazko probak izandako arrakasta ikusita – 31 bikotek eta 12 korrikalarik parte hartu zuten; guztira, 74 lasterkari–, aldaketa gutxi egin dituzte. Ibilbidea bakarrik aldatu dute: bost kilometro egin beharko dituzte korrikalariek, Enpresagintza Fakultatetik irtenda. Ibarratik abiatuta, Unibertsitate etorbidetik plaza aldera egingo dute eta Atzeko kaletik igoko dira, Etxaluzeraino. Handik Apaolaza kalea eta Kurtzebide zeharkatuko dituzte, Moiua kalera hartu baino lehen. Errekaldeko lehen bidegurutzetik Bakardade Ama kalera egingo dute. Kale Zaharretik Lizaur kalera hartuko dute, eta postetxe aurretik pasa ondoren, plazatik Kale Barrira joango dira. Ibilbide horri bi buelta emango dizkiote parte-hartzaileek.

Sari banaketa ekitaldia plazan egingo dute.

**DATUA**

**74**

KORRIKALARI

Horiek dira iazko proban parte hartu zuten korrikalariak.

**Iazko azkarrenak**

Iaz, 31 bikotek eta 12 korrikalarik parte hartu zuten. Azkarrenak Maider Gaztañaga eta Mitxel Cuadrado izan ziren. Nerea Etxeberria eta Ruben Almendro eta Estela Biain eta Jon Mikel Larrañaga sailkatu ziren, hurrenez hurren, bigarren eta hirugarren lekuetan.

**Berdintasunaren alde**

2009an Oñatiko Enpresagintza Fakultateak berdintasun diagnostikoa eta plana egin zituen. Definitutako ekintzetako bat berdintasunaren alorrean ikasle eta irakasleak kontzientziatu, sentsibilizatu eta prestatzea izan zen. Hori horrela, Enpresagintza Fakultateak bikote mistoen herri lasterketa antolatzea erabaki zuen.

Lasterketaren helburua ez da bikotekide batekin korrika egitea, berdintasunaren aldeko herri-lasterketa batean parte hartzea baizik. Lasterketa horren bitartez, emakumeek kirola egitea sustatu nahi dute, eta, lehiatik haratago, kirola egiteko beste modu batzuk daudela erakutsi.

ULMA — ULMA CyE, S. Coop. — Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

**Eguna:** 2012ko maiatzaren 11.
**Ordua:** 09:00etan lehen deialdia eta 09:30ean bigarrena.
**Tokia**: Zubikoa kiroldegiko frontoian – Oñati (Gipuzkoa).

GAI ZERRENDA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko.
2. 2011ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea eta 2012ko gestio plana berrestea
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2011ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea
5. 2011ko ekitaldiko emaitzak banatzea.
6. 2011ko ekitaldiari dagokien interesen sortzapena eta kapitalizazioa
7. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
8. Supraegiturako entitateei buruzko gaiak
9. POGU III eta ULMA C y E, Koop. Elkarteko Barne Araudi Kooperatiboko 42., 43. eta 46. artikuluak aldatzea, hala badagokio.
10. ULMA C y E, Koop. Elkarteko Barne Araudi Kooperatiboko 27. eta 28. artikuluak aldatzea, hala badagokio
11. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
12. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena
13. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
14. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
15. Ahalmenak eskuordetzea
16. Galde-eskeak.

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kanpo auditoriak egindako kontuen gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten.
Bazkide guztiei jakinarazten zaie eskubidea dutela, ULMA C y E Kooperatiba Elkarteko helbide sozialean, proposatutako Barne Araudiaren eta POGU IIIaren aldaketen testu osoa aztertzeko, eta doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2012ko apirilaren 25a

ULMA — ULMA Packaging, S. Coop. — Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

**Eguna:** 2012ko maiatzaren 10a
**Ordua:** 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
**Tokia**: Zubikoa kiroldegiko frontoian – Oñati (Gipuzkoa).

GAI ZERRENDA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko
2. ULMA C y E, S. Coop.en Packaging Sekzioaren 2011ko ekitaldiko itxierari buruzko txostena
3. ULMA Packaging, S. Coop.eko 2012ko gestio plana berrestea
4. ULMA Taldeari buruzko txostena
5. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
6. Supraegiturako entitateei buruzko gaiak
7. POGU III eta ULMA Packaging, S. Coop.eko Barne Araudi Kooperatiboko 42., 43. eta 46. artikuluak aldatzea, hala badagokio
8. ULMA Packaging, S. Coop.eko Barne Araudi Kooperatiboko 27. eta 28. artikuluak aldatzea, hala badagokio
9. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
10. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena
11. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
12. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
13. Ahalmenak eskuordetzea
14. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkide guztiei gogorarazten zaie kanpo auditoriak aztertutako 2011ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiari dagozkion ULMA C y E, S. Coop. eko urteko kontuak, emaitzak banatzeko proposamena eta gestio txostena egoitza sozialean eskura dituztela Batzar Nagusira bitartean aztertu ahal izateko.
Bazkide guztiei jakinarazten zaie Barne Araudiko aldaketen testu osoak eta POGU III-ari dagozkion aldaketa proposamenak ULMA Packaging, S. Coop.-eko egoitza sozialean eskura dituztela, eskuratu edo dohainik bidaltzea eskatu ahal izateko.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2012ko apirilaren 25a



Ospitaleko arduradunak, alkatea eta Osakidetzako ordezkariak eguazteneko agerraldian. | JON BEREZIBAR

# Ospitale inguruan 204 aparkaleku plaza izango dira

## Hitzarmena sinatu zuten eguaztenean Arrasateko Udalak eta Osakidetzak; inaugurazioa, ekain erdialdean

**JON BEREZIBAR/E.M.** | ARRASATE

Hitzarmena sinatu dute Arrasateko Udalak eta Osakidetzak. Ekainaren 18an zabaltzen dutenerako, 110 aparkaleku berri egongo dira ospitale berriaren inguruan. Baina horiek ez dira izango egingo dituzten guztiak. Lehen faseko aparkaleku kopurua da hori. Inaugurazio egunean bertan erabilgarri egongo direnak. Beste 94 aparkaleku eraikin zaharraren beheko aldean egongo dira.

### Eraikin berrian

Eraikin berrian 63 plaza egongo dira, azpian; eta eraikinaren atzean, Telefonicako eraikin zaharren eta ospitale berriaren artean beste 47. Hitzarmena eguaztenean sinatu zuten Udalak eta Osakidetzak, eta bi erakundeek uste dute hein handi batean inguru horretako aparkaleku gabezia konponduko dela. Inazio Azkarragaurizar Arrasateko alkateak nabarmendu du "orain dela lau urte ezarri ziren epeak beteko" direla eta "osasun zerbitzuen erreferente" bilakatuko dela Arrasate.

### Ekain erdialdean inaugurazioa

Osakidetzako zuzendari nagusi Julian Perezek aurreratu zuenez, ekainaren 18ko astean egingo dute ospitalearen inaugurazioa eta lehendakaria da Arrasatera etortzekoa. Esan bezala, irekierarekin batera guztira egongo diren 204 aparkalekuetatik 110 erabili ahalko dira, ospitale berri azpikoak eta atzekoak. Horrekin batera Osakidetzak eta Udalak konpromisoa hartu dute Gamei pareko 100 plazak ahalik eta denbora luzeenean erabili ahal izateko. Horretarako Fagor Arrasate kooperatibarekin berba egingo dute, haiek erosi baitzuten Gamei zena. Azkenik, ospitalea zaharrean ere aparkaleku gehiago egingo dituzte. Bigarren fase bat izango da hori. Eraikin zaharreko zatirik baxuena bota eta beste 57 toki egokitzea da asmoa.

**DATUA**

**110**

APARKALEKU

**Ekainean ospitalea zabaltzen dutenerako gertu egongo dira. Beste fase baten 94 aparkaleku egingo dituzte.**

FAGOR

FAGOR ARRASATE S.COOP

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

***DEIALDIA***

**DATA:** 2012ko Maiatzaren 11n, ostirala.
**ORDUA:** 08:30ean lehen deialdian, eta 09:00etan bigarrenean.
**TOKIA:** Gesalibarreko "Aita Menni" Gaixotegiaren Batzar Aretoan, Arrasate.

**EGUNEKO AZTERGAIAK**

1. Aktak onartzeari buruzko informe eta akordioa.
2. Memoriaren irakurketa eta onarpena.
   2.1. 2011ko gestioari buruzko akordioa
   2.2. 2012ko Gestio Plana onartzea.
3. "Mondragon Industriarako Automatizazioa" Dibisioari eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
4. 2011ko Kontuen azterketa.
5. 2011ko Soberakinen banaketa.
6. Erregimen Ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
7. 2012 Ekitaldirako Lan Aurrerakinen inguruko erabakiak.
8. 2002ko Borondatezko Ekarpenen kitapena eta 2012ko Borondatezko Ekarpen berrien jaulkipena.
9. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak.
10. Fagor Arrasate, Koop. E eta Fagor Arrasate Service Technology, S.A.ren arteko Bat-egitearen onarpena (*).
    10.1. 2011ko abenduaren 31an itxitako Bat-egite Balantzearen azterketa eta onarpena.
    10.2. Bat-egite proiektuaren eta Bat-egitearen azterketa eta onarpena.
    10.3. Kontseilu Errektoreari ahalmenak eskuordetzea.
11. Kontseilu Soziala berritzea.
12. Fagorreko Batzarreko ordezkariak hautatzea.
13. Galderak eta eskariak.

(*) Euskadiko Kooperatibei buruzko 4/1993 Legearen 78. artikuluan adierazitako dokumentuak –Bat-egitearen inguruko informazioa– egoitza sozialean aztertzeko eskubidea dutela jakinarazten zaie bazkide guztiei. Honetaz gain bazkideek dokumentu hauek osorik eskatu edota dohain jasotzeko eskubidea ere badute. 4/1993 Legearen 79.2 artikuluan –Bat-egitearen akordioa– aurreikusitakoaren arabera, 2012ko martxoaren 14an Kontseilu Errektoreak sinatutako Bat-egitearen Proiektua ere gehitu zaio deialdi honi.

Arrasaten, 2012ko apirilaren 20an

# Bergaran bizi eta Donostian lan egiten duenak 93 euro uzten ditu hilero autobidean

## Bidesarien gainean gipuzkoarren arteko desoreka eragiten dutela diote Diputaziotik

**G. ARANA/E.MENDIBIL** | ARRASATE

Errepideen egoera ezagutarazteko eta finantzazio sistemari buruzko gogoeta bultzatzeko kanpaina abiatu du Diputazioak. Foru Aldundiko ordezkariek erakundera iritsi bezain laster heldu zioten errepideen finantzazioaren gaiari, "betidanik eztabaida sakonak eragin" dituelako. Batetik, Batzar Nagusietan ponentzia eratu da errepideen finantziazioari buruz hitz egiteko. Bertan, herritarrek ere parte hartzeko aukera izan dute, eta irekitzear den gogoeta fasean Internet bidez parte hartzeko aukera ere emango zaio jendeari. Bestetik, Gipuzkoako hainbat alkaterekin bilerak egin dituzte, errepideen egoera azaltzeko eta Aldundiaren planteamendua ezagutarazteko.

### Lau arlo aztergai

Horrez gain, eskuorri bat kaleratu dute, jendeari zuzenean egoeraren eta planteamenduen berri emateko. Aldundiak Gipuzkoako etxe denetara helaraziko du esku-orri hori.Bertan lau arlo azaltzen ditu Aldundiak.

Gaurko egoerari buruz, 1.330 kilometro errepide daude Gipuzkoan, eta 1997a ezkero 2.500 milioi euro inbertitu dira errepideak egiteko. Aldundiaren esanetan, ordea, "errepideen kontserbazioan inbertitu beharrekoa ez da era berean handitu eta, ondorioz, defizit historikoa 140 milioikoa da". Era berean, Aldunditik diote Bidegik "900 milioi euroko zorra" duela gaur eta zor hori "2032ra artekoa" dela.Foru Aldunditik tentuz jokatzeko garaia dela diote: "Ez da proiektu handiak egiteko ordua, aukera guztiak aztertu eta egokienak ongi aukeratzekoa baizik". Bigarrenik, bi sistemen bidez finantzatzen dira errepideak: Aldundiaren aurrekontuen bidez, hau da, %100 gipuzkoarren diruarekin; edo bidesarien bidez. Azken horien gainean desoreka eragiten dutela diote: "Bergaran bizi eta Donostian lan egiten duen pertsona batek, deskontu guztiak aplikatuta ere, 93 euro uzten ditu hilero autobidean; Hernanin bizi eta Zarautzen lan egiten duen norbaitek, 23; eta Tolosan bizi eta Donostian lan egiten duen batek ez du ordainsarietan ezer ordaintzen".

Bestalde, mugikortasun ikuspegitik hainbat lan egitea ezinbestekoa da: errepide mantentzea, proiektu berriak eta egokitzapenak egitea, mantentze zerbitzu berezia bermatzea (neguko zaintza, istripuak…), garraio publiko sistema egokia bultzatzea, Lurraldebus, txartel bakarra sustatzea… 2012an Departamentuaren aurrekontua 96 milioiko da eta bidesarien bidez 102 milioi lortu dira; mantenurako eta ezinbesteko lanak egiteko 280 inguru beharko lirateke

Azkenik, Aldundiaren iritziz, ezinbestekoa da "finantziazio sistema bidezkoenaren alde" egitea, eta lau galdera planteatzen ditu: "Erabiltzaile gipuzkoarren arteko oreka bilatu behar du sistemak? Gipuzkoarrek ez ezik, bertatik pasatzen direnek ere ordaindu behar dituzte errepideak? Kontuan hartuta erabiltzaile guztiek kutsatzen dugula, gastua denen artean konpartituko duen sistema da egokiena? Kalitatezko garraio publiko merkea eta errepideen egoera ona bermatu behar ditu?. Aldundiaren ustez, galdera horiei baietz erantzungo dien sistema izango da "egokiena", eta hori bilatzeko lan egingo du. Bitartean, gaiari buruzko gogoeta egitera bultzatu nahi ditu herritarrak.

vibike bikes & triathlon

Zure ziklismo, running eta triatloi esparrua Gasteizen.

Parking propioa. 400 m²ko erakusketa zure zain.



Bergarako Atea 24 • Gasteiz • www.vibike.com

## ZABALIK

**ANDONI URZELAI**
http://goiena.net/iritzia/



# 'Rearme' ideologikoa

Agintariek itsuan hartu dituzten neurri ekonomikoek, martxa honetan, txikitu egingo gaituzte. Zorraren aitzakian hartutako murrizketa erabakiei buruz ari naiz, noski. Atzera hezkuntza, atzera ikerketa eta atzera osasun sistema publikoa. Zein etorkizun izan dezake, ordea, hezkuntzan inbertitzen ez duen herrialde batek?

Krisiak beste zenbait kontu kezkagarri ere azaleratu ditu, dena den. Inpresioa daukat ideologikoki geneuzkan hutsuneak erakutsarazi dizkigula.

Lan eta langile-eskubideen alde borrokatu behar izan ez dugunok –45 urte bitartekook, alegia– ez dugu urteotan Gure Gauzak SA baino beste ezertaz arduratu behar izan. Zera esan nahi dut: ongizate gizartea –eskubide laboralak, justizia ekonomikoa– finkatuak zeudela gu lan munduan sartu ginenerako, eta, beraz, salbuespenak salbuespen, ez dugula kontu horien inguruko hausnarketa teoriko minimoenik ere egin. Tupustean aldatu egin dira gauzak, ordea: krisi latza bizi dugu, jada ez gara ondo bizi eta ongizate gizartea hautsi egin da. Gainera, infekzioa sortu duten berberak ari zaizkigu zein botika behar dugun esaten. Kimioa, dio eskuin liberalak. Eta guk: Amen.

Zergatik ordaindu behar ditu enpresariak langilearen oporrak? Zergatik ordaindu behar zaio kaleratutako langileari diru ordain bat? Joan den astean entzun nizkion galdera hauek ondoko gazte bati, tabernan. Zazpi bat lagun zeuzkan inguruan –30 urte, batez beste–, eta inork ez zuen txintik esan. Eta langileak ziren, ez pentsa bankariak zirenik gero!

Ez dugu erantzunik horrelako astakeriatarako. Ideologikoki hustu egin gaituzte. Eskuin liberala egiten ari den txikikeria konprenitu egiten dugu, logikoa dela sinetsarazi digute. Ez baitakigu deusik sistema ekonomikoaz eta ideologiaz. Eta okerragoa dena, ez dugu jakin nahi, nahigo dugu orain ere futbol kontuetan endredatu.

**"Krisi latza bizi dugu, jada ez gara ondo bizi, ongizate gizartea hautsi egin da"**

## GUTUNAK

# Errauste plantak eta balorizazio energetikoa

**Gorka Bueno**
(EHUko irakaslea)
Bilbo

Aurreko astean hitzaldi bat eman nuen Arrasaten, errauste planten balizko balorizazio energetikoaren inguruan.

Sektore batzuetatik errausketa proposatzen digute Euskal Herrian hondakinak tratatzeko. Haien argumentazioan ohikoa da esatea hondakinak erretzean energia berriztagarria sortzen dela, eta errauste plantek hondakinen balorizazio energetikoa egiten dutela. Gauzak, berriz, oso bestelakoak dira, eta hori azaltzen saiatu nintzen. Gai hau oso teknikoa eta konplexua da, eta horretaz baliatzen dira gizartean informazio okerra zabaltzeko.

Europako Batasunak baldintza batzuk ezartzen dizkie errauste plantei, balorizazio energetikoko plantatzat hartzeko, eta Zubietako proiektuak ez ditu betetzen baldintza horiek. Zubietako proiektuak elektrizitatea bakarrik sortuko luke, eta horrela balioztatze energetikoa oso pobrea da. Hori jakina da, eta horregatik beste balioztatze eredu bat erabiltzen dute ipar Europan: hondakinen beroa zuzenean aprobetxatzen duena, adibidez hirietan berokuntza hornitzeko. Baina Euskal Herrian horrek ez dauka batere zentzurik.

Zabalgarbiren eredua ere ez da baliagarria. Zabalgarbin erretzen dituzten hondakinen beroa gas naturaleko ziklo konbinatu batera sartzen da, elektrizitate gehiago sortzeko. Baina kalkuluak eginez gero, argi geratzen da Zabalgarbiren emaitzak oso kaxkarrak direla: haren efizientzia beste zentralena baino baxuagoa da; elektrizitatea ez da berriztagarria –gehiena gas naturaletik dator–; eta funtzionamendua ez da batere malgua.

Gainera, elektrizitatea sortzeko, errauste plantak ez dira batere garbiak. Espainiako sare elektrikoan 1 kilowatt-ordu kontsumitzen dugun bakoitzean, atmosferara 300 gramo $CO_2$ inguru isurtzen da, nonbait. Zabalgarbin, berriz, 450 gramo isurtzen dute, eta Zubietan 600 gramo baino gehiago. Argi dago sorkuntza elektrikoa garbiagoa dela errauste plantak geldituta daudenean.

# II. Errepublika (espainola)

**Iñaki Rodriguez**
Bergara

Apirilaren 14a egun seinalatua da. Espainian eta Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan Bigarren Errepublika aldarrikatu zeneko urteurrena betetzen da. Aurten 81 urte dira. 1931n ezarri zen, Alfontso XIII.aren monarkiaren ordez, gaur egungo Espainiako estatuburu Borboiaren aitajauna erbesteratzera behartu ostean, eta 1939ra bitarte iraun zuen, Francok, Estatu kolpea eman eta gerra irabazi ostean, diktadura ezarri zuen arte.

Hainbat alorretan, aldaketa, askatasun eta aurrerapen urteak izan ziren Francoren aurreko urte haiek.

Hori ukaezina da, batzuek beste iritzi bat izango duten arren.

Lehen euskal estatutua, Elgetakoa, esaterako, ordukoa da.

Hori bai, hura ere, gaur egungo Gernikako Estatutua bezala, hiru lurraldetara mugatua, Nafarroa kanpoan utzita.

Errepublika gogora ekartzeko, bandera hiru kolorekoa jartzen dute Bergaran, Domingo Irala herriko semearen omenezko monolitoan. Bere garaian, ezker abertzaleko ortodoxoek espainolistatzat hartzen zituzten EMK edo LKI edo Zutik edo haien ondorengoek edo ingurukoek edo lagunek jartzen dutela uste dut. Ohiko irudia da apirilaren 14an. Askori, sinpatikoa egiten zaiela esango nuke.

Harritu nauena, ostera, zera da: Bilduk erakutsi duen debozioa Espainiako II. Errepublikarekiko, Donostiako udaletxean beste espainiar bandera hori ere zintzilikatuz. Ez gara, bada, soilik euskal herritarrak, independentzia zaleak eta euskal estatuaren aldekoak? Ez gabiltza gau eta egun lurraldetasuna aldarrikatzen? Eta udako jaiak ailegatzen diren oro, *Ikurrina bai, espainola ez!*, ikurrinaren aldeko manifestazioak antolatzen? Ez gaude bandera espainolaren aurka? Beste *rojigualda* bezala, beste hau politagoa izan arren, ez da, bada, inposizioaren ikur?

Zertara dator, orduan, bandera espainola euskal erakundeen eraikinetan lau haizetara zabaltzeko nahi hori, espainiar estatupeko II. Errepublika gogora ekarri edo omentzeko nahi hori?

Ai, ene!... oraindik zur eta lur nago!

# Zapalkuntza kulturala

**Jon Otero Uribarren**
Arrasate

Partidu popularrak ez du kondenatzen frankismoa, dio iragana dela eta kito.

Zergatik kondenatu behar du ezker abertzaleak ETAren borroka? Esan dezakegu berdina, iragana dela eta kito. ETAren borroka bukatu da. Nork kondenatzen du Euskal Herriak pairatzen duen zapalkuntza? Hainbeste espainolismo. Konstituzioak behartzen gaitu gaztelania jakitera, zergatik? Nik eta nire semeak ez dugu nahikoa euskara eta ingelesa jakinda? Zergatik erakutsi behar diot nire semeari gaztelania? Ba nik ez diot erakutsi nahi.

Zergatik pairatu behar dugu hainbeste musika espainol, hainbeste ohitura espainol, hainbeste bandera espainol, hainbeste identitate espainol, hainbeste politika espainol? Zergatik? Ba ez! Euskal kultura nahi dugu Euskal Herriko zoko guztietan.

Salatu behar da zapalkuntzan bizi garela eta euskal nortasuna itotzen ari direla.

Hauteskundeak irabazi eta gure kabuz irten gaitezen Espainiako Estatutik, zeren bestela...

# Eskerrik asko, Atzegi!

**Aitor Biain Umerez**
Oñati

Eskerrak eman nahi dizkiot Atzegiri Bidebarrieta kalean dagoen lokala berriro abian jartzeagatik. Beraiei esker, lokalean izena emateagatik oporretan oso merke joateko aukera dugu Atzegin gauden guztiok. Eta lehen egiten genuen antzera, zapatu guztietan elkar ikusten jarrai genezake. Oharra: oso esker oneko gara Helenarekin eta Jasonerekin. Eskerrik asko, Helena eta Jasone.

# Zaborra sortzen

**Gurutze Toledo Saralegi**
Bergara

Antzuolan oso ondo ikasi dute hondakinak gaika sailkatzen, hartara zabor gutxiago sortzen da herrian. Halaber, zenbaitzuek adibide bera erakutsiko balute pertsonak sailkatzen...?

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
Gutunarekin batera, bidali: egilearen izena eta abizena, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EEGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:**
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:**
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila diruz lagundutako aldizkaria
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza


TORRA+PORTELLA
Zure seme edo alabaren ideiarik onena bezain jostagarria. Horrelakoa izatea nahi duzu bere denboraren zatirik handiena igaroko duen lekua. Magikoa, abegikorra, bere adinerako pentsatutako aukera praktikoekin. Umeentzako logeletan proposamen ugari dituzu made in Kibuc. Zuk egiten duzu Kibuc.
ZU zara funnya
zuk egiten duzu kibuc
gutxieneko prezioa bermatuta ok
1.176 €
98 € x 12 hilabete interesik gabe*
3D proiektuak doan
KIBUC Gure Ametsa
Landeta Hiribidea 1, Azpeitia Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com
www.kibuc.com
Proiektu eta eraberritze integralak
KIBUC altzariak eta osagarriak
Azkenean etxean
Niko programa Argi eta kolore ugariz osatutako proposamena, zure seme-alaben beharretara eta espaziora egokitzen dena. Trinkoa, ohe ateragarria eta ateratzeko estalkia L 203,8 zm-koak, 2 ateko armairuarekin (L78,4 zm-koa) eta kuboekin. Akaberak: decapéak, testuratu zuria eta laranja iluna. Neurria: L 281,8 zm. Adierazitako akabera eta neurrietarako balio duen prezioa. BEZ barne. *Irekitze-gastuak % 2, eta finantza-erakundeak ontzat emateari baldintzatua.

**Julian Iantzi** | Telebistako aurkezlea

# "Euskararengatik, euskalkiarengatik, hasi nintzen 'Sorginen Laratza'-n duela 11 urte"

- Telebistako aurkezleak ia galdu egin zuen euskara txikitan, gaztelania ikasteagatik
- 7 urterekin itzuli zen Ameriketako Estatu Batuetatik eta gaztelania ikasi behar izan zuen

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Kalifornian jaioa. Hara lanera joandako artzain lesakarren semea. 7 urterekin etorri zen Euskal Herrira, Lesakara, anai-arrebekin, aitarekin eta amarekin. Francoren garaian, gaztelania ikasi behar eta euskara eta ingelesa ia galdu egin zituen. Euskaltegian izena eman eta euskara berriro berreskuratu eta hobetu zituen. Horri esker hasi zen telebistan. "Euskarari zor diot famatu izatea", dio. Bere bizipenak herririk herri kontatzen dabil. Arrasateko gaztetxean ere izan da.

**Zelan bururatu zitzaizun herririk herri berbaldiak egitea?**

Lehendabizikoa Eibarren egin nuen. Hango ikastetxe batetik deitu zidaten ea joango nintzen ikasleen aurrean esperientziak kontatzera. Euskararen gainean berba egiteko eskatu zidaten. Jende famatuari, erreferentziazkoari, kasu egingo ziotelakoan ikasleek, bozgorailu egokiak garelakoan. Ideia gustatu zitzaidan eta hala hasi nintzen. Duela bi urte-edo izan zen hori. Ondoren, Elkarbide elkartearen eskutik, batik bat, han eta hemen dihardut. Hego Euskal Herriko lurralde guztietan ibili naiz, dozenaka batzuetan.

**Gazte jendearen aurrean, batik bat?**

Bai, ikastetxeetara-eta joaten naiz-eta. Baina, batzuetan, euskaltegiek, euskara elkarteek... ere antolatzen dituzte, eta horra helduagoak ere hurbiltzen dira, gurasoak...

**Zer kontatzen diezu?**

Euskararekiko nire ibilbidea. Gaztelaniaz egin izan ditut hainbat telebistako saio, ospetsuak, gainera; baina, batik bat, euskaraz egin dut nire ibilbide profesionala: *Basetxea*, hiriburuetako jaien gainekoak, *Atzerritarrak Euskal Herrian*... Esaten diet euskarak geroago eta garrantzi handiagoa daukala lan arloan ere... eta oso garrantzitsua dela euskaldun izan eta bizi izatea. Gure hizkuntza delako eta nortasun propioa, kultura berezitua... baditugulako. Eta bere hizkuntza galtzen duen herria galbidean dago. Hemen baditugu beste bi hizkuntza, gaztelania eta frantsesa, baina euskara da geuk egitekoa. Horretaz gain, gaur egun, 104 hizkuntza entzun ahal ditugu Euskal Herrian kalean. Eta mestizaia oso ondo dago, baina beti kontuan izanda geurea defendatu behar dugula, geuk egiten ez badugu, beste inork egingo ez duelako. Gure herriarekiko eta hizkuntzarekiko konpromisoa behar direla esaten diet ni entzutera datozenei.

**Zuk zeuk euskarari zor diozu ospetsu izatea eta telebistan aritzea, ezta?**

Hala da, eta hori ere nabarmentzen dut berbaldietan. Euskararengatik, euskalkiarengatik, hasi nintzen *Sorginen Laratza*-n duela 11 urte. Ez nuen uste telebistaren munduan amaituko nuenik. Ez naiz kazetaria, ez modeloa, ez eta aktorea... saltseroa baizik...

**Euskara galtzekotan ere izan zinen.**

Bai. Euskaldun eta ingeles etorri nintzen Euskal Herrira. Ez nekien gaztelania. Baina Francoren eskoletan beharrezkoa zen gaztelania, eta, hura ikastearen beharraz, besteak ia galdu egin nituen, ez nituelako horrenbeste erabiltzen. Ohitura hartu nuen, eskolan, etxean, kalean koadrilarekin... gaztelaniaz aritzeko. Konturatu orduko euskara maila urria nuen eta buruan neukana euskaraz ahotan jartzeko ez nintzen gauza. Zerbait egin beharraz, 30 urte nituela, esan nion neure buruari euskara berreskuratu behar nuela. Eman nuen izena Berako IKA euskaltegian eta hala hasi nintzen berreskuratzen. EGA titulua atera nuen... Hiru urte eman nituen, maila berreskuratuz eta euskara koadrilan sartuz. Horri esker hasi nintzen telebistan. Lehen kontratua sinatu nuenean esan nion neure buruari: "Eskerrak hasi nintzela duela hiru urte, bestela uko egin beharko nioke-eta lanari!". Euskara behar-beharrezkoa dela agerian geratu zen.

**Zelako jarrera erakusten dute zu entzutera doazenek?**

Ezberdina da adinaren eta lekuaren arabera, edo herri euskaldunak diren edo ez... Hasierako erreakzioa da telebistako ospetsu bat ikustearena. Harridurazkoa apur bat. "Kontxo, hau benetakoa da eta ez da telebistan ematen duen bezain gaiztoa...". Euskaraz gaztelaniaz bezain ondo aritzen naizela ikusterakoan, eskemak puskatuta-edo sumatzen ditut hainbatean.

**Galderak egiten dizkizute?**

Bai, bai. Begira, Mallabia da *El Conquistador*... saioaz galdetu ez didaten herri bakarra. Eztabaida osoa euskararen gainekoa izan zen. Horrek harritu ninduen.

**Eta euskararen gainean zer galdetzen dizu jendeak?**

Zergatik mozten dituzten *El Conquistador*... saioan lehiakideak euskaraz aritzen direneko pasarteak. Zergatik ez diren lehiakideen arteko euskarazko solasaldiak telebistan ematen...

**Zer erantzuten diezu?**

ETB3 eta ETB1 baditugu erabat euskaraz. Eta, gero, badira ETB2, ETB Sat... Baina berezituta daude. Batzuk dira euskarazko kateak eta besteak gaztelaniazkoak. Betidanik izan da hala. Ni ez naiz espezialista eta ez dakit zein den egokiena. Halere, uste dut, *El Conquistador*... saioko hainbat solasaldi, natural, euskaraz emango balituzte, gure errealitatearen isla izango litzatekeela. Gure jendartea elebiduna delako.

**Zer eman dizu euskarak, batik bat, alor pertsonalean?**

Dena. Ni euskalduna naiz... eta harro nago. Ameriketako Estatu Batuetan jaiotako euskalduna naiz. Senideak baditut Boisen-eta. Haiek ere oso euskaldunak dira. Euskaraz pentsatzen dut, nire nortasun propioa daukat, berezia, ez naiz inor baino gehiago, baina ezta gutxiago ere. Eta euskararen enbaxadore naiz kanpoan nagoenean.

**Euskaldun izatea abantaila izan da zuretako.**

Dena zor diot euskarari: munduari buelta eman, hainbat toki eta pertsona ezagutu... Erabat aberasgarria izan da dena.

**ETBn euskarazko katea, euskara azken finean, bigarren mailan dagoela ez duzu uste?**

Telebista negozio da eta diruak, lanak, audientziak daukate zerikusia. Tamalez, hiru hizkuntza ofizial ditugu Euskal Herrian eta euskara normalizatzea helburu den arren, ez gara iritsi oraindik. Euskara atzetik doa. Ikus-entzuleen eskuetan ere badago kontua. Bestalde, denon poltsikotik ateratzen da EITBrako dirua eta denondako edo ahalik eta gehienondako egin behar da telebista. Ez du konponbide samurrik. Ez da erraza hori kudeatzea. Kritikatzea bai. ETB1n audientzia, tamalez, txikiagoa da ETB2n baino. Eta horrek badu ondorioa. Baina,euskarazko katean ere egiten da ahalegina eta audientzia handiko programak badira, *Basetxea*, esaterako.

**Euskarazko pelikulak ez dira apenas ikusten ETB1en...**

Hala da, bai. Behin egin zuten saiakera bat eta jarri zuten ETB1en eta ETB2n, aldi berean, film bera: Harry Potter. Bada, euskarazkoan ez zen apenas ikusi. Euskaldunok ere gaztelaniazkoaren alde egin genuen. Euskararen alde bazaude, kontsumitu ETB1.



Julian Iantzi, Arrasateko gaztetxean. | ENEKO AZKARATE

**"Ez naiz kazetaria, ez modeloa, ez eta aktorea... saltseroa baizik"**

**"Dena zor diot euskarari: munduari buelta eman, jende asko ezagutu..."**

**Aritz Etxebarria eta Asier Hormaetxe** | Biark Studioko arkitektoak

# "Errehabilitazioaren garaia da, eta hori da guk gehien lantzen dugun arloa"

**Biark Studio Arrasateko arkitektura talde gazte bat da. Bi kidek osatzen dute, Aritz Etxebarria Errasti arrasatearrak eta Asier Hormaetxe Eguren elorriarrak. Orain dela sei urte zabaldu zuten Biark, eta ordutik hona hainbat gauza egin dituzte; sariak ere irabazi dituzte.**

**Nola ikusten duzue eraikuntzaren etorkizuna? Krisiak zuzenean jo du sektore hau.**
Bai, egia da eraikuntza arloan asko sumatu dela krisia, baina baliteke obra berria izatea gehien sumatu duena. Uste dugu errehabilitazioaren momentua dela, eta hori da guk gehien lantzen dugun arloa.

Merkatuak ez du etxe berri gehiagorik behar, egin behar dena da daudenak iraunkor eta eroso bihurtu.

**Zer esan nahi duzue horrekin: "Iraunkor eta eroso"? Egungo etxeak ez dira iraunkor eta erosoak?**
Etxe askok ez dituzte erosotasun parametro basikoak betetzen. Bizilagunek hotza pasatzen dute, hezetasunak dituzte horma eta sabaietan, ez dira irisgarriak...

**Horrek badu irtenbiderik?**
Bai, noski. Lehenengo eta behin, arazoa non dagoen aztertu behar da, eta gero, irtenbidea bilatu. Fatxadak kanpoaldetik berrituta eta isolamendua jarrita etxearen ezaugarri termikoak hobetzen ditugu eta, aldi berean, goitik behera alda dezakegu eraikinaren kanpoko itxura. Modu horretan hezetasunak ere desagertzen dira eta erosotasun maila asko hobe daiteke.

Berogailuaren fakturan %30 aurreztea lortzera hel gaitezke. Leihoak aldatuz, teilatua isolatuz eta aire berriztapen minimo bat eginda ere diru asko aurreratzea lortzen da.




**Asier Hormaetxe eta Aritz Etxebarria, Arrasateko Usaetxe plazan duten bulegoko atarian.**

**Zein izango litzateke obra hauek aurrera eramateko bide zuzena?**
Lehenengo eta behin, teknikari moduan, aztertuko genuke arazoa non dagoen. Bizilagunen laguntzarekin arazoa nondik datorren antzemango dugu, eta, horrela, emaitzarik onena ematen saiatuko gara.

> **"Berogailuaren fakturan %30 aurreztea lor dezakegu"**

Gomendagarria da lanean hasi baino lehen Eraikinaren Azterketa Teknikoa (ITE) egitea. 50 urte baino gehiago dituzten eraikinetan derrigorrezkoa da azterketa hori egitea, eta, horren bidez, eraikinaren egoera zehazten da. Azterketa hori diruz lagunduta dago Eusko Jaurlaritzaren aldetik; atari bakoitzeko 1.000 eurorainoko dirulaguntza ematen dute.

**Errehabilitazioa da, orduan, orain gehien egiten ari dena?**
Bai, hala da. Ekonomikoki bideragarriagoa da dagoena hobetzea berria erostea baino; gainera, administrazioak errehabilitaziora zuzenduta dauden dirulaguntzak ere ematen ditu.

> **"Etxeak iraunkor eta eroso bihurtu behar ditugu"**

**Zein lan mota egiten duzue zuek?**
Gaur egun gehien egiten duguna da: baserriak konpondu, eraikinen errehabilitazio energetikoa (fatxadak eta teilatuak), igogailuen instalazioa irisgarritasuna hobetzeko helburuaz, etxebizitzen erreformak, lokal komertzialen egokitzapena, txostenak eta jarduera lizentziak, besteak beste. Dena dela, edozein obra berri mota ere egiten dugu.

**Orduan, arkitekturarekin lotutako arlo asko jorratzen dituzue...**
Bai; hainbat arlotan gara adituak. Bulegoa zabaldu genuenetik beti jorratu izan ditugu arlo desberdinak; hortaz, nahiko *todoterreanoak* garela esango genuke. Bulegoa zabaldu aurretik beste arkitekto batzuen bulegoan ere lan egin dugu; beraz, esperientzia nahikoa dugula esan dezakegu.

Jendea animatzen dugu dituen zalantzekin Usaetxe plazan dugun bulegora hurbiltzera, eta gu emaitza zuzena ematen saiatuko gara bezeroarekin elkarlanean. Gure esperientziarekin aholkatu egingo dugu, eta aukera desberdinak aztertu.

**Kontsulta egiteak konpromisorik sortzen du?**
Ez, kontsulta egitea debalde da. Gero, lana zehaztearekin bat fintkatzen dira baldintzak.

BIARK STUDIO arkitektoak
Aholkularitza eta laguntza tramitazioan:
aukera tekniko desberdinen azterketa, proiektua, lizentzia, dirulaguntzak, obrarako aurrekontuen analisia, obra zuzendaritza....
Komunitateak Fatxaden isolamendua Erreformak Igogailuak

Etxebizitzak Lokalak Baserriak
Eskatu zure aurrekontua konpromisorik gabe
www.biark.net
Usaetxe plaza 1, behea, Arrasate - Tel.: 943 79 80 33 - e-maila: biark@arquired.es

# HERRIAK

OÑATI

# Mineralak ezagutzeko jolasa antolatu dute Oñatiko dendetan

- Eraskusleihoetan mineralak jarri dituzte, eta haien inguruko galderak erantzun behar dira
- Arrikrutz-Oñati kobek eta herriko Txanda elkarteak antolatu dute egitasmo hori

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Mineralak hobeto ezagutzeko erakusketa-jolasa antolatu dute Arrikrutz-Oñatiko kobek eta Txanda merkatarien elkarteak. Horretarako, 33 mineral jarri dituzte Oñatiko dendetako erakusleihoetan. Kaltzita mineralak Arrikrutzeko koban egin duen lana ikusteko irteera eta munduko mineral handienak erakusten duen dokumentalaren emanaldia ere antolatu dituzte.




Txandako, Arrikrutzeko eta Udaleko ordezkariak, Argentinako meteoritoa eta mineralak erakusten. | MIREIA BIKUÑA

**Erakusketa-jolasa**

Ume eta helduek parte har dezakete jolas horretan. Txandako dendetan, Arrikrutzen eta Turismo Bulegoan kartoi batzuk egongo dira eskura, eta kartoi hori beteta entregatu behar da hilaren 19a aurretik Turismo Bulegoan edo Arrikrutzen. Bete beharreko galderak dendetako erakusleihoetan ikusgai dauden mineralen inguruko galderak dira. Eta erantzunak, erraz topatzekoak. Izan ere, mineral bakoitzaren ondoan berari buruzko informazioa jasotzen duen testu bat dago: mineralaren ezaugarriak, jatorria, izen zientifikoa edo erabilerak jasotzen ditu, adibidez. Nahikoa da ohar hori irakurtzea kartoian datorren galderari erantzuteko.

Galderei erantzun ondoren, jokalariak hamar dendatan sartu beharko du, kartoiari balioa emango dion kontrol-zigilua jartzeko. Bada, horrela entregatzen dutenek lepotik zintzilik eramateko harri txiki bat izango dute opari, eta, horrez gain, amatista geoda baten eta Txanda elkarteko hamar oparien zozketan hartuko dute parte.

**Urretxuko Urrelur museoa**

Arrikrutz-Oñatiko kobak eta Txanda merkatarien elkarteak elkarlanean antolatu duten egitasmoa da. Mineralak ezagutarazi gura dituzte horrela, eta hori ikasteko eskola kalera atera dute. "Herriko dendariok ere herriko egitasmoetan parte hartu gura dugu, herria bizirik ikusi gura dugu guk ere. Gainera, horrelako proiektuek laguntzen digute bezeroekin dugun harremana sendotzen eta hurbilagoa izaten, eta baita bezero berriak erakartzen ere. Gaztetxoak erosketak Internetez egiten diren garaikoak dira, eta horiei ere erakutsi gura diegu zein produktu ditugun gure dendetan, eskaintzen dugun kalitateaz eta zerbitzuaz gain", dio Maibi dekorazio dendako Argiloain Perosterenak. "Jolas honekin, gainera, gure dendetara lasai sar daitezkeela gogorarazi gura diegu herritarrei, eta sartzen diren bakoitzean ez daudela behartuta ezer erostera", gehitu du.

Kaltzita, kobrea, kuartzo arrosa, pirita, silopanoa, galena eta zelestina dira, adibidez, Oñatiko 33 dendetan jarri dituzten mineraletako batzuk. Forma, kolore eta tamaina ezberdina dute, baina gehienak handiak dira, batzuk, gainera, pisutsuak. "Urretxuko Urrelur mineral eta fosilen museoaren laguntza izan dugu proiektu hau antolatzeko. Museo horrek utzi dizkigu mineralak", azaldu du Ikerne Altubek, Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziako gerenteak.

**Maiatzaren 19ra arte**

Mineralak hobeto ezagutzeko antolatu duten jolas hori hasi da dagoeneko. Eguaztenean jarri zituzten harriak ikusgai dendetan. Ikastetxeetan ere eman dute egitasmo horren berri eta ume batzuk dagoeneko hasi dira dendarik denda mineralak ezagutzen. Hilaren 19a aurretik entregatu beharko dira kartoiak eta zozketa 20an egingo dute Arrikrutzen.

DATUA

**35**

MINERAL

Txandako 33 dendatan mineral bana jarri dute, beste bat dago Turismo Bulegoan eta beste bat Arrikrutzen; 35 guztira.

## Eszentrika ikusteko irteera

Mineralen hilabetea izango da maiatza Arrikrutzen, eta mineralak hobeto ezagutzeko jolas honen barruan irteera bat ere antolatu dute. Arrikrutzeko koban dagoen eszentrika gertutik ikusteko irteera izango da hori. Kaltzita mineralak egindako lana ikusi ahal izango da bisita horretan.

Eszentrika ikusteko irteera datorren maiatzaren 13an, domekan, egingo dute, 09:30ean. Bi orduko iraupena izango du bisitak eta aurretik eman behar da izena, plazak mugatuak dira-eta: 943 08 20 00.



Naica koba barruan ateratako argazkia (ezkerrean, pertsona). | GOIENA

## 'Naica' dokumentalaren emanaldia

Mexiko iparraldean dagoen herri bat da Naica, eta munduko mineral handienak dituen koba bat dago bertan, herriaren izen beraz ezagutzen dena. Koba hori lur azpitik 300 metrora dago eta 12 metro luze dituzten mineralak aurkitu dituzte barruan. Naicako, Almeriako eta Txileko mineralak jasotzen dituen dokumentala maiatzaren 8an erakutsiko dute, 19:00etan. Aurkezpena Urretxuko museoko Javier Aguadok egingo du.

# Ordutegia probatu ostean, iritzi gehienak lehenetan

Astelehenean sartuko da indarrean alde zaharreko ordutegi berria; 15 eguneko probaldian egon da ordutegi berria, apirilaren 23a ezkero

UBANE MADERA | ARRASATE

Azkeneko egunetan da alde zaharreko zirkulazioaren ordutegi berriak zela funtzionatzen duen ikusteko probaldia. Izan ere, datorren maiatzaren 7an, astelehena sartuko da indarrean.

Ordutegi berria azaltzen duten seinaleak jarrita daude, baina estalita; horiek ere astelehenean bertan utziko dituzte agerian.

**100 sinadura pasa kontra**

Momentuz, baina, ordutegi berriaren probaldiaren ostean, egoera lehenetan dagoela esan genezake: herritar batzuek gustura hartu dute funtzionamendu berria, eta beste batzuek kontra segitzen dute.

Azken horien artean, adibidez, Josu Sarabia dago, alde zaharreko bizilaguna. 100 sinadura pasarekin babestutako kontrakotasuna adierazi dio Udalari, eta ordutegi berria probatu ostean, iritzi berarekin segitzen duela adierazi dio GOIENAri: "Berdin ikusten dugu, ez du konponbiderik ematen, eta alde zaharreko bizilagunendako arazoak besterik ez ditu ekartzen, bereziki nagusiendako, edo anbulantziak sartzeko. Arrasateko beste edozein lekutan baldintza hobeak dituzte alde zaharrarekin konparatuz".

> **ESANAK**
>
> **"Salbuespenak bermatuz gero, uste dut denok irabaziko dugula ordutegi berriarekin"**
>
> JESUS MARI ELKORO | IBAI ARTE

Horrekin batera, Gazteluondo Ferreiasekin lotu duen kalearen erabilpena aldarrikatu gura du Sarabiak: "Kale bat mozteko ez da beharrezkoa zirkulazio guztia etetea, eta sortu duten kale berriari ez diote bideragarritasunik emango. Gune berdeak egin gura baditugte, egin ditzatela, baina lehenengo egin ditzatela eta gero moztu dezatela zirkulazioa. Egia da arratsaldetan ordutegia zabaldu egin digutela, baina ez dugu uste batere praktikoa denik. 100 sinadura pasa aurkeztu ditugu Udalean. Helburua zen modu sinbolikoan aurkeztea, baina nahi izanez gero, askoz gehiago batuko genituzke".

**Ibai Arte, konforme**

Bestalde, alde zaharreko bizilagunei eragiteaz gainera, ordutegi berriak zuzenean eragiten die, baita ere, dendariei. Horien artean ere denetariko iritziak daude, baina orokorrean modu positiboan ikusten dute Udalaren erabakia. "Daukagu hirigune zahar bat dela harribitxia, eta ez dugu baloratzen; ibiltzeko, paseatzeko eta erosketak egiteko toki garbi eta zirkulazio bakoa bada, guretako hobea izango da", adierazi du Jesus Mari Elkoro ordezkariak.

Hala ere, Elkorok gaineratu du salbuespenak badaudela eta horiek aintzat hartzeko eskatu diotela Udalari: "Bertako bizilagunenak, adibidez. Arrazoi justifikatuengatik etxera autoz sartzeko aukera izan beharko luketе; zenbait komertziok ere malgutasuna beharko lukete zamalan astunak mugitzeko, adibidez. Eta orokorrean, zamalanak egiteko lekuak libre egotea bermatu beharko da. Bestalde, aparkalekuak ere behar dira, txandakakoak, adibidez (beste herri batzuetan ondo funtzionatu dute, Bergaran, esaterako) kanpotik erostera datozenendako. Hori guztia bermatuz gero, uste dut denok irabaziko dugula".



**AMAIA ARRIETA**

"Ondo iruditzen zait umeendako zirkulazio txikiagoa izatea. Zubia egon denez, ez dugu askorik igarri, baina igarriko da. Edozein konturatzen da auto nahikotxo pilatzen zela. Autoa behar duenarendako, baina, ez da ona izango".



**XABIER LASAGABASTER**

"Ondo dago oinezkoendako izatea, baina erdigunea bakartu egiten da, ze sekulako aparkaleku arazoak baitaude; jendeak utzi egingo dio erdigunera etortzeari, ezin duelako aparkatu. Ikastolari dagokionez, ondo ikusten dut".



**URITZ ARENATZA**

"Erdigunekoak oso gustura daude, baina guraso asko etortzen dira ospitale ingurutik... eta haiek erosotasuna galdu dute. Ni Eskoriatzatik nator, eta ez dut ikusten arazo handirik autoek aparkatuko balute".

# Elkartasuna erakusteko eguna bihar, zapatua

U.M. | ARRASATE

Oraingo asteburu honetan Arrasateko hitzordu nagusietako bat Seber Altuben egin dute: gobernuz kanpoko Harreman elkarteak Elkartasun Eguna antolatu du, 24. aldiz.

10:00etan hasi eta 20:30ak arte gobernuz kanpoko Debagoieneko erakundeek postuak ipinita izango dituzte, proiektuen berri eman eta elkartasuna bultzatzeko. Horiekin batera, urtero moduan, tonbola ere izango da, dirua batzeko; bidezko merkataritzan oinarritutako saltokia ere bai; eta baita Arizmendi Ikastolako ordezkaritza ere.

Berritasun bat, baina, izango du aurtengo Elkartasun Egunak: "Alcorta eta Amstel taberna" ipiniko dute, Arrasate Bizirik elkartearekin batera.

**500 neskatila**

Tonbolan batutako dirua Mumbaiko (India) Ankur umezurtz-etxera bideratuko du Harreman elkarteak. Kalean utzitako edo oso familia pobreetako 200 neskatila bizi da han. Baina aspalditik dihardu Harreman elkarteak proiektu horretan lanean: 1994tik hona "500 neska atera dira etorkizun duinerako prestatuta".

> **EGITARAUA**
>
> **10:00** Irekiera ekitaldia.
>
> **12:00** Puzgarriak.
>
> **12:30** Arrasate Musikaleko banda txikiaren emanaldia.
>
> **13:30** Portaloi taldearen kantu saioa.
>
> **17:30** Kukubiltxoren Txirrikiz ikuskizuna.
>
> **19:30** *Herrixa dantzan.*
>
> **20:30** Tonbolako sari nagusiaren zozketa.



Euskadiko Orkestra Sinfonikoa kontzertua eskaintzen. | GOIENA

# Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren luxuzko bisita, Aita Menni ospitalera

E.A. | ARRASATE

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko zuen atzo, eguena, Arrasaten. Aita Menni ospitalean izan zuten, hain justu ere luxuzko aukera hori aprobetxatzeko bidea.

Joan den urtean izan zen Euskadiko Orkestrak Aita Mennira egindako lehen bisita eta ekimenaren arrakastaren ondorioz, aurten ere egitea erabaki dute. "Duela urtebete bizi izandako esperientziaren ondoren, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Aita Menni ospitalera itzuliko da, 50 musikari ingururekin, L.V. Beethoven konposatzaile alemaniar ospetsuak idatzitako lehen sinfonia interpretatzeko asmoz", azaldu zuten orkestrako ordezkariek. 30 minutuko saioa eskaini zieten bertara gerturatu zirenei.



BEDOÑABE HAURRESKOLA (0-2 urte)

**Matrikulazio epea zabalik: Maiatzaren 2tik 11ra**

**NON:** Bedoñabe Haurreskola • Alfonso VIII, 1 • ARRASATE
Tel.: 943 79 76 86
*bedonabe.arrasate@haurreskolak.net*

**NORENTZAT:** 2011-12an jaiotakoentzat.

Haurreskolak

# Extremadurako zapore eta doinuak asteburuan

U.M. | ARRASATE
Arrasateko extremadurarren topaleku den Corazon de Encina kultur elkarteak Kultura Astearen 22. edizioa ospatzen dihardu, joan den asteburutik oraingo domekara arte; eta justu oraingo asteburuan dira ekitaldirik esanguratsuenak.

Batzuk nabarmentzearren, gaur, egubakoitza, Enrique Gartzia FAEDko presidenteak *Extremadurako elkarteak krisi garaian* gaia aztertuko du, hitzaldi bitartez (19:30). Gero, *El Rubio* maisuaren gitarra eskolako ikasleek emanaldia egingo dute, eta bukatzeko, 23:00etan flamenko saioa.

**Folklore ikuskizuna**
Bihar, berriz, besteak beste, 19:00etan folklore ikuskizuna izango da eta 00:30ean, dantzaldia Gardokirekin.

## ZALDIBAR

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Sonografos-Aldatz | **2-1** |
| Dublin-Iriztu | **3-6** |
| Dribling-McAwenDauen | **6-6** |

**SAILKAPENA**

| A TALDEA | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1** | Abokajarro | **6** | **2** |
| **2** | Iriztu | **6** | **3** |
| **3** | Sonografos | **6** | **2** |
| **4** | Dribling | **4** | **2** |
| **5** | Dublin | **3** | **3** |
| **6** | McAwen | **1** | **3** |
| **7** | Aldatz | **0** | **3** |
| B 1. TALDEA | | P | J |
| **1** | AT. Betrayer | **6** | **2** |
| **2** | Iluna | **3** | **2** |
| **3** | Portaboleiros 2.0 | **3** | **2** |
| **4** | Fidel & Discipulos | **0** | **2** |
| B 2. TALDEA | | P | J |
| **1** | Lasagabster | **6** | **2** |
| **2** | Aston Birra | **3** | **2** |
| **3** | Iluntz | **3** | **2** |
| **4** | Ekaitz | **0** | **2** |

**PARTIDUAK**
MAIATZAK 5, ZAPATUA
**10:00** Fidel & Discip.-AT Betrayer / **Lasa.**
**11:00** Ekaitz-Lasagabaster / **Betrayer.**
**12:00** Sonografos-Dublin/ **Ekaitz**
**13:00** Iluna-Portabolei / **Dublin**
MAIATZAK 6, DOMEKA
**11:00** Abokajarro.-Dribling / **Iluntz**
**12:00** Aston Birra-Iluntz / **Dribling**
**13:00** Aldatz-McAwen / **Aston Birra**
**Iriztu:** Atsedena.

# Atez atekoaren gaineko azalpenak, auzoz auzo

## Ekainaren 5eko osoko bilkuran aztertuko dute gaia

UBANE MADERA | ARRASATE
Urte eta erdi falta da oraindik Arrasaten hondakinak biltzeko sistema aldatzeko, baina herritarren kezka nagusia "informazio falta" dela ikusirik, hitzaldi zikloa abiarazi du Udalak asteon.

**HITZALDIAK**

**MUSAKOLAN**
Maiatzak 10, Herri Eskola.

**ERDIGUNEA**
Maiatzak 17, Kulturate.

**SAN ANDRESEN**
Maiatzak 23, Etxaluze.

**ERGUIN-URIBE**
Maiatzak 24, Sanvi Txiki.

**LANDA AUZOAK**
Maiatzak 30, Kulturateko Loramendi aretoa.

**Hitzaldi guztiak 19:00etan dira.**

Hain zuzen, hitzaldi-zikloaren aurkezpenean, Inazio Azkarragaurizar alkatea kezkatuta azaldu zen hondakinen arazoarekin, esanez "legediak hondakindegiak itxiaraziko" dituela epe labur baten eta "erraustegi kutsakor baten inposizioa" dugula gainean. Zerbait egitea "ezinbestekoa" dela adierazi zuen.

Bada, ildo horretan, "hondakinekin dugun arazoaren muina zein den eta Udalak atez ateko bilketa sistemaren alde zergatik egiten duen azalduko da" hitzaldi-zikloaren bitartez.

Oraingo asteko eguenean hasi eta datozen lau asteotarako egin dituzte hitzorduak, maiatzaren 30era arte.

**Zaborraren kudeaketa kontseilua**
Bestalde, hitzaldi-zikloaren aurkezpen ekitaldia aprobetxatuta, zaborraren kudeaketaren inguruan analisia egiteko eratzen ari den kontseiluaren gogorarazpena ere egin zuen Udalak. Kasu horretan, datorren martitzenean, maiatzaren 8an, da lehen hitzordua, prozesua aurkezteko.

**Kudeaketa kontseilua**

Zaborraren kudeaketa kontseiluaren hitzorduak eta gaiak.

**MAIATZAK 8**
Parte-hartzaileei prozesuaren aurkezpena egingo diete.

**MAIATZAK 15**
Zaborraren hierarkia Europako legedian eta haren garrantzia.

**MAIATZAK 22**
Hondakinen bilketa antolatzeko eragileen proposamenen aurkezpena eta analisia.

**MAIATZAK 29**
Ondorioak atera eta ahalik eta adostasun handiena lortuko duen sistema aukeratu.



Herritar talde bat osoko bilkuren aretoan, Uribetxeberria defendatzen. | U.M.

# Uribetxeberria aske uzteko eskaera, kartzelara

U.M. | ARRASATE
Leongo kartzelako zuzendariarekin batzarra eskatuko du udal ordezkaritza batek, Uribetxeberria preso arrasatearraren "egoera azaldu eta haren askatasuna eskatzeko". Halaber, hori egiteko, bertara joatea eskatzen zuen mozioa onartu zuten eguazteneko osoko bilkuran, eta horren ondorioz, udal ordezkaritza kartzelara joango da.

**Bizi osorako tratamendua**
Josu Uribetxeberria gaixo dago 2005a ezkero. Tumore bat detektatu zioten orduan, eta giltzurrun bat kendu eta bizi osorako tratamendua ezarri zioten. Onartutako mozioan aldarrikatu zuten "legediaren arabera, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak kaleratuak" izan behar direla, "bizi duten gaitzak behar bezalako tratamendua izan dezan". "Bi urtean mota horretako gaitza berpizteko arriskuaren aukera % 51 da. Beraz, kanpoan egon beharko luke arazo horri behar bezala aurre egiteko, baina orain arte ukatu egin diote aukera hori".

Alderdi sozialistak bozkatu zuen mozioaren kontra. Aritz Arrieta bozeramaileak argudiatu zuen Lopez lehendakariak aurkeztu duen kartzela politikak aurreikusten duela gaixo dauden presoak kaleratzea, aurrez ezarritako baldintza batzuk betetzen badituzte. Uribetxeberriari buruz esan zuen "kalean ez badago legea betetzen ez duelako" dela.

# Berandu baina etorri badatoz San Andres auzoko jaiak

U.M. | ARRASATE
Dagokiena baino beranduago datoz aurten San Andres auzoko jaiak. Arrazoia Udalak azaldu du: "San Andresko auzo alkatetzaren eraketa atzeratu egin da eta horrek eragin du talderik ez egon izana jaiok antolatzeko. Horren ondorioz, eta jaiak geroz eta hurbilago zeudela ikusita, pare bat ostalarik jo zuten Udalera kezkatuta. Bilera bat egin zuten, udal ordezkariek ostalariokin eta jaietarako egitarau bat adostu zuten. Udala arduratu da egitarau honetako ekintzak antolatzeaz eta San Andresko auzo-alkatetzak ordainduko ditu".

**EGITARAUA**

**EGUBAKOITZA**
**17:00-19:00** Jolasak eta txokolate jana; Santa Marinako batukada aterako da 19:00etan. Eta 19:30ean, buruhandiak
**22:30** Oihan Vega.

**ZAPATUA**
**12:00** Beti Jairen kalejira.
**12:00-14:00** Bedoñaben jolasak, salda eta txistorra.
**14:30** Herri Bazkaria
**17:00-19:00** Bedoñaben jolasak eta puzgarriak.
**17:00-20:00** Segway aparailuetan ibiltzeko aukera izango da.
**22:30** *La risa va por Barrios* monologoa eta Una Noche Sin Sabina, kontzertuan

**DOMEKA**
**12:30** Goikobalu Abesbatzarekin poteoa.
**15:30** Urmai tabernan Poker txapelketa.
**18:00** Txikitxuren saioa.

## OHARRAK

**MATXURA, GAZTETXEAN**
Gaur, egubakoitza, Matxura taldeak kontzertua egingo du, Kooltur ekimenaren barruan, 22:00etan.

**ERRETIRATUEN OMENALDIA**
Maiatzaren 26an izango da erretiratuen omenaldia. Gonbidapenak maiatzaren 18ra arte har daitezke, 18:00-19:30ak arte, astelehenetik eguenera, eta 19:00ak arte, egubakoitzean.




Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Iñaki Goitia | Idazlea

# "Bizi izateko modu moduan ulertzen dut nik filosofia"

Txikitatik izan du gustuko idaztea Iñaki Goitiak eta orain filosofia ikasketekin batera uztartzen du

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Murtziako Torre Pacheco hiriko ipuin laburren sari nagusia irabazi du Iñaki Goitia filosofia ikasle eta idazle oñatiarrak. Horrez gain, *Con un par de narices* ipuin laburren finalera heldu dira haren bi testu. Beste makina bat sari ere jaso du gazte horrek, eta haren lanak ere argitaratu dituzte liburu baten baino gehiagotan.

**Zorionak! Gustura lortu duzun sariarekin?**

Eskerrik asko! Bai, oso gustura. Bertako jendea ezagutzea oso esperientzia aberasgarria izan da eta sariaz aparte beste gauza asko jaso dudan sentipenaz bueltatu naiz.

***Tribulaciones de un acrófobo amnésico* lanarekin Murtzian saria irabazi duzu. Zeri buruzko lana da?**

Istorioak zirkuko akrobata baten beldurrak azaleratzen ditu. Onena izan arren altuerari beldur dio eta infernu antzeko bat bizi du. Goraino igotzera zerk bultzatzen duen galdetzen dio bere buruari. Amnesia puntu bat ere badu eta goraino eramaten duen arrazoiaz ohartzeaz bat ahaztu egiten du, eta emanaldi bakoitzeko ziklo amaigabe bat eragin.

***The Big Nose Theory* kontakizunarekin ere aipamen bat jaso duzu.**

Bai, kasu honetan finalista izan da beste lehiaketa baten eta aukeratua suertatu den *Partenogénesis onírica* testuarekin batera liburu baten argitaratuko dute.

**Zer bultzatuta idatzi dituzu testu horiek?**

Ez dakit, agian laneko protagonistak bezala amnesia puntu bat izango dut idaztera zerk bultzatu nauen gogoratzerako orduan. Egia esan, orain dela urte asko idatzi nuen eta intuitiboki idazten dudanez ez nuke jakingo istorio konkretuaren arrazoia. Beste bi lanak lehiaketa baten barruan sortuak izan dira.

**Noiz sartu zinen literaturaren munduan? Nolakoa izan da ibilbidea?**

Betidanik izan dut gustuko, baina zaletasuna itzaltzen joan eta urteak eman nituen ia ezer irakurri gabe. Filosofiari heldu baino pare bat urte lehenago berpiztu zitzaidan txikitako zaletasuna, eta geroztik idazten dihardut. Barruko behar batek bultzatuta idazten dut; harrezkero zenbait lehiaketatan sariak jaso eta liburu batzuetan argitaratu dizkidate lanok.

**Zer ematen dizu filosofiak?**

Filosofia bizi izateko modu bat da. Zeureganatzen duzun ezagutza horren guztiaren gainetik pertsona moduan aldatu egiten zaituela azpimarratuko nuke. Pertsona ezberdin bat egiten ez zaituen filosofia ez da, nire ustez, benetako filosofia. Atzera bueltarik ez duen puntura eraman behar zaitu.

**Mundua beste modu batera ikusteko balio izan dizu?**

Bai, baina batez ere beste modu batera bizi izateko. Kontenplazioa ondo dago, baina are hobea iruditzen zait eraldaketa badakar. Gizakiak bere ingurua ezagutu eta aldatzeko beharra izan du beti, baina, lehenik, nork bere burua ezagutu eta aldatu beharra duela iruditzen zait.

Ez dut esan nahi filosofia denik bide bakarra; bai, ordea, nik ezagutzen dudan bakarra.

**Zer lan duzu orain esku artean? Aurrera begira baduzu beste proiekturik?**

Bai, besteak beste, kontakizun laburren liburu baten dihardut lanean, eta hura argitaratzea izango litzateke momentuan dudan helburu hurbilena.

Aurrera begira beste istorio luzeago batzuen proiektuak darabilzkit gogoan, baina horiek itxaron egin beharko dute, oraingoz, behintzat.



Iñaki, bere ipuin bat jasotzen duen liburu sarituarekin. | A.E.

**"Ipuin laburren liburu batean dihardut orain lanean"**

**"Mundua beste modu batera bizi izateko balio izan dit filosofiak"**

## Argazkigintza ikastaroa emango du Ilunpetanek

O.E. | OÑATI

Ilunpetan argazki taldeak argazkigintza ikastaroaren bigarren txanda antolatu du, hastapen tailerrek izan duten erantzuna ikusita.

Aurreko tailerretan bezala, hamar saioko ikastaroa izango da, baina saioak bost astean banatuko dira. Hau da, astean bi egunean emango dira eskolak, martitzenetan eta eguaztenetan, 18:30etik 20:00etara. Argazkigintza ikastaro hori maiatzaren 15ean hasi eta ekainaren 13an bukatuko da.

**16 pertsonako taldea**

Argazkigintzako bigarren ikastaro hori ere Itziar Bastarrika argazkilariak emango du. Historia apur bat, kamerak erabiltzeko oinarrizko teknikak eta zenbait autoreren lanak erakutsiko ditu Bastarrikak, besteak beste.

16 pertsonako taldea osatuko dute eta tailerraren prezioa da 50 euro. Interesa duen edonork gaztelekuan eman behar du izena maiatzaren 10a aurretik.

## 76 umek egingo dute lehen jaunartzea datozen bi asteburuetan

76 umek egingo dute lehen jaunartzea datozen bi asteburuetan. Domekan izango da jaunartzeen lehen elizkizuna, 12:00etan, San Migel parrokian. Josean Larrañaga parrokoak azaldu duenez, datorren asteburuan bi elizkizun egingo dituzte: zapatuan 18:00etan eta domekan 12:00etan. "Domeka bietako jaunartzeak parrokiako aldare nagusian izango dira eta zapatukoak, aldiz, parrokiako kaperan", zehaztu du Josean Larrañaga parrokoak.

## Iluntzeko etxafuego jaurtiketarekin hasiko dira San Migel Txikiak

Alberto Arregiren omenezko futbol txapelketako finalekin hasiko dituzte gaur, egubakoitza, San Migel Txiki jaiak. 19:00etan jaurtiko dute etxafuegoa eta hortik aurrera hasiko dira asteburu osorako antolatu dituzten ekitaldiak: txorimaloak, ardo eta gazta dastatzea Bujeronian, musika emanaldiak, auzo bazkariak, koadrilen arteko I. herri kirol txapelketa, artisauak, mendiko bizikleta zeharkaldia, magia ikuskizuna, dantza eta zozketa, besteak beste.

# Zorroberok irabazi du beteranoen futbol txapelketa, eta Txuskos taldeak kopa

Aloña Mendik sari berezia jaso du, emandako laguntzagatik

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Zorrobero talde beteranoak irabazi du aurtengo beteranoen futbol txapelketa. 2-0 irabazi zion finaleko partiduan Albok talde gazteari. Hirugarren Xaguzar taldea sailkatu zen, 2-0 irabazi ostean Joxely taldeari.

Kopari dagokionez, berriz, Txuskos eta Etxaixak taldeek jokatu zuten finala. Bana egin zuten eta penalty jaurtiketetan Txuskos izan zen garaile. "Denboraldi kaskarra egin arren, koparako jokatu beharreko partidu denak irabazi zituen talde horrek, bilakaera polita izan zuen", azaldu du Anton Sierrak.

**Aloña Mendiri saria**

Ligako eta Kopako sariak ez ezik, urterokoak ere eman dituzte aurten, hau da, gol gutxien jaso duen atezainari eta gol gehien sartu duen jokalaria ere saritu dituzte.



Zorroberok talde beteranoa Azkoagaiñen. | ANTON SIERRA

Honela, Xaguzar taldeko Gorka Lazkanoiturburuk jaso du gol gutxien jaso dituen atezainaren saria; Dooligans taldeko Joseba Albizuk golegilearen saria; Txarrixak taldeko Jose Manuel Charrascok kiroltasunaren saria; Zorroberoko Alberto Regueirok beteranoaren saria. Bukatzeko, Aloña Mendi kirol taldeak ere saria jaso du aurten. Emandako laguntza guztiari eskerrak eman gura izan dizkio beteranoen futbol txapelketak.

## 45. urteurrena ospatuko du Txantxikuk asteburuan

O.E. | OÑATI

Asteburuan egingo dituzte Txantxiku ikastolak 45. urteurrena ospatzeko antolatu dituen ekitaldietako asko. Tartean da zapatu arratsaldean Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek kiroldegian emango duten Zazpikoloro emanaldia. Sarrera guztiak daude salduta: 1.040. Goizean jolas parketak, erakusketa eta ate irekiak egingo dituzte. Hori guztia bihar izango da, eta gaur, egubakoitza: DBH eta batxilergoko ikasleen bazkaria, jolasak, kirolak, lehiaketak, Nikaraguan garatzen ari den proiektuarekiko elkartasun ekintza eta umeendako jaialdia izango dira beste ekitaldi batzuen artean: antzerkia, koreografiak eta abestiak, besteak beste.



Kiroldegi berria, urbanizatze lanak egiteko, Loramendi kaletik bueltan joanda. | M.A.

# Nahasmena eragin du kiroldegiaren adjudikazioak

- LKS, Athlon eta Ondoan hirukoak kudeatuko du hamar urteotan
- Informazio kanpaina abiaraziko dute, baina irekiera datarik ez da zehaztu

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Datozen hamar urteotan kiroldegi berria zeinek kudeatuko duen erabaki zuen udalbatzak apirilaren 24an egindako osoko bilkuran: LKS, Athlon eta Ondoan enpresek osatutako hirukoak. Erabaki horrek zalaparta eragin du eta horren lekuko izan da *goiena.net* webgunea. Herritarrei argibideak eman guran, udalbatzako kideengana jo du GOIENAk, eta iritziak eskatu alde guztiei. Ezin izan ditugu iritzi guztiak jaso, EAJ alderdiarena bakarrik; Bilduko Ana Bolinaga alkateak erantzun du astean ez dutela ezer bidaliko: "Datorrenerako, berriz, bai". Eta Aralarkoek "oraingoz deklaraziorik ez egitea" erabaki dute.

### EAJ alderdiaren argibideak

EAJko kideek jakinarazi dute kirol etxearen kudeaketaren esleipena berandu eta gaizki kudeatu duela Udal Gobernuak: "Lehenik, gestioaren modeloaren gaineko desadostasunek prozesuaren hasiera atzeratu zuten. Ondoren, pleguak gertatzeko orduan gure ekarpenak ez ziren kontuan izan". Eta EAJk ezezkoa eman zien pleguei: "Kontratazio mahaian ez zegoen kanpoko adituri, ekonomikoki eskatzen ziren garantiak eta hobekuntzak ezereztatuak izan ziren, eta, orokorrean, pleguak gutxi landuta zeuden. Gardentasun falta egon da, eta hori oso larria dela deritzogu".

Nahiz eta hutsuneak egon oinarriak gertatzerakoan bi proiektu serio aurkeztu zirela deialdira gaineratu dute, baina pleguek hutsune handiak zituztela: "Kontratazio mahaiaren erabakia hirukoaren aldekoa izanik (3-2), Aventori eskatu zaio beste balorazio bat. Aventoren erabakiak ere berriro pleguen ahuleziara garamatza; izan ere, Goiena Sport enpresari eman dio puntuazio handiagoa, baina hirukoaren proiektua hobea dela esan du".

Horren aurrean bi aukerak aztertu zituzten: "Abstentziora jo edo proiektu biak aztertu eta herriarentzat onena kontsideratzen dugunaren alde egin. Ezohiko bilkuraren atzerapena eskatu genuen EAJko bi zinegotziok parte hartu ahal izateko, baina hau ere ez ziguten onartu. Horren aurrean, abstentzioaren aldeko erabakia hartu zen". Eta garbi utzi gura izan dute prozesu honetan ez dutela ezer erabakitzeko aukerarik izan: "Guk egindako ekarpenak ere ez dira kontuan hartu; beraz, ez diezagula inork egoera nahasi honetan ez dagokigun erantzukizunik eskatu". Era berean, eskatu dute alkateak eta Udal Gobernuak azter dezatela zer egin den gaizki, "berriro ez errepikatzeko". Eta bukatzeko gaineratu: "Kirol instalazio punta-puntakoak izango ditugu, kudeatuko duen enpresaren seriotasuna ere bermatua dago; beraz, denok horren alde egin beharra dugu".

### Aditu baten balorazioa

Udal gobernuak kiroldegi berriaren kudeaketa eredua integrala izatea erabaki zutenean lehiaketaren oinarriak gertatu zituen Udalak, eta abenduaren 12an egindako osoko bilkuran onartu. Oinarrietan hainbat aldaketa egiteko eskatu zuten Aralarko eta EAJko kideek; tartean, kontratazio mahaian aditu bat egotea eta kiroldegiari jarraipena egiteko sortzekoa den Jarraipen Batzordean Kirol teknikaria egotea. Ez bata eta ez bestea ez zituzten onartu, eta EAJk ezezkoa eman zien. Oinarri horietan puntu banaketa zehaztuta geratu zen: pertsonalaren kontratazioa, 50 puntu; antolaketa proiektua, 40 puntu; kudeaketa plana eta instalazioen mantentzea, 20 puntu; bideragarritasun plana, 20 puntu; eta hobekuntza proposamenak, 10 puntu. Kontratazio organoa, ostera, osoko bilkura izatea zehaztu zen.

Lehiaketa deia egin, eta bi enpresa aurkeztu ziren: Goiena Sport, batetik; eta LKS, Athlon eta Ondoan enpresek osatutako hirukoa, bestetik. Eta urtarrilean bi horien eskaintzak aztertzeko kontratazio mahaia osatu zuten honako kideek: Ana Bolinaga, alkatea (Bildu); Tomas Fernandez, Kirol zinegotzia (Bildu); Olaia Sagredo, Berdintasun zinegotzia (Aralar); Xabier Mendizabal, udal idazkaria; eta Juan Antonio Martinez de Agirre, diruzainak. Kontratazio mahai horren egitekoa zen bi eskaintzak baloratzea eta proposamen bat aurkeztea osoko bilkuran, udalbatzak onartzeko. Kontratazio mahaiko hiru kide hirukoaren alde agertu ziren eta bi, Goiena Sporten alde (Bildu). Martxoaren 26an egindako osoko bilkuran ziren aurkeztekoak proposamen bat, baina alkateak jakinarazi zuen orduan "muturreko puntuazioagatik" aditu inpartzial baten balorazioa eskatu gura zutela, eta erabakia atzeratu.

Kirol aholkularitzan adituak diren hainbat enpresarengana jo zuten balorazio eske, eta, azkenean, Donostiako Avento hautatu. Hark hirukoari puntu gehiago eman zizkion hasiera batean, baina gero, Aventok balorazio txostena alderdiei aurkeztu zienean, hainbat puntu aldatu beharrean izan zen alkateak hala eskatuta, eta, ondorioz, Goiena Sport aurretik geratu zen. Hala ere, zinegotziei horren gaineko azalpenak ematera etorri zen ordezkari bat eta hiruko enpresaren alde egin zuen Aventok, Goiena Sportek puntu gehiago izan arren.

Horren ondoren, berriro bildu zen kontratazio mahaia proposamen bat aurkezteko osoko bilkuran, eta, aurretik legez, hiru kide hirukoaren alde agertu ziren eta bi Goiena Sporten alde. Hala, hiru enpresen arteko elkartea kontratatu edo ez jarri zuten mahai gainean apirilaren 24ko osokoan.

### Bozketan bost aldeko boto

Bilkura hartan Aralarko hiru zinegotziek eta Bilduko bik –Edorta Mendieta eta Lore Martinez– LKS, Athlon eta Ondoan enpresek osatutako hirukoaren alde bozkatu zuten; eta Bilduko Ana Bolinaga alkateak, Tomas Fernandez Kirol zinegotziak, Zigor Quintanillak eta Maider Aizkorbek aurka; Jose Luis Martin, ostera, ez zen izan bilkuran. EAJko Mari Carmen Astigarraga abstenitu egin zen eta Mikel Uribetxebarriak ez zuen egoterik izan, Txinan zegoelako lan kontuengatik. Alderdi Sozialistako Ainhoa Sagarribai ere ez zen egon.

**DATUA**

**10**

URTE

Hirukoak hamar urterako kontratua sinatuko du Udalarekin, 20 urte arte luzatzeko aukerarekin, bost urtean behin berrikusita.

### Kiroldegiko tarifak "garestiak"

Zeinek kudeatuko duen jakin ondoren tarifen berri izan dute herritarrek, eta, kalean, "garestiak" direla diote askok: "Bi heldu eta bi ume dituenak 51,84 euro ordaindu behar ditu hilero; hortaz, pentsa urtean!".

Tarifa guztien berri eman eta abonatzeko egin beharrekoak argitzeko kanpaina abiarazi gura du Udalak lehenbailehen. Instalazioak erakusteko asmoa ere agertu zuten udal ordezkariek orain hilabete inguru, eta bisita gidatuak antolatzeko gertu azaldu ziren orduan.

## Gizarte Zerbitzuetako jarduerak antolatzeko dirulaguntza deia egin dute

**M.A.** | ARETXABALETA
Gizarte Zerbitzuetako jarduerak antolatzen dituzten elkarteei zuzendutako dirulaguntza deia egin du Udalak egunotan. Irabazi asmorik gabeko elkarte eta taldeak aurkez daitezke deialdira eta Aretxabaletan edo eskualdean garatutako jarduerendako da laguntza. 5.300 euro bideratu ditu Udalak deialdi horretara.

Era berean, garapenerako lankidetza-programetarako diru-laguntza deia egin du Udalak. Gobernuz kanpoko erakundeei zuzendutako deialdia da, garapen bidean diren herrialdeetako biztanleen egoera sozio-ekonomikoa hobetu eta sentsibilizazioa lantze aldera.

Batera zein bestera eskaera egiteko epea maiatzaren 24an bukatuko da.



ARETXARTE

## Saria Pablo Bergaretxerendako

Sariak banatu eta banatu dabil Aretxarte merkatarien elkartea eta joan den astean Pablo Bergaretxe izan zen irabazlea. Kioskoan 10:00etan erosketa egiteagatik izan zen saritua, eta 50 euroko balioa duen edertze produktuekin osatutako saskia jaso zuen L10 ile-apaindegian. Datozen asteotan ere sariak banatzen jarraituko dutela Aretxarteko komertzio eta ostalaritza zerbitzuetan iragarri dute.



Loramendiko Nerea Lete sariaren berri ematen Basotxoko kideei. | ENERITZ URRUTIA

# Basotxo nagusi haragi-bola txapelketan

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA
Elkarte arteko III. olinpiadak egiten dabil Loramendi elkartea eta joan den egubakoitzean haragi-bola edo albondiga txapelketa jokatu zuten. Eguzki Alde gastronomi elkartera eroan zituzten aurretik egindako haragi-bolak, bost lapiko guztira, eta Basotxo erretiratuen elkarteko kideek jaso zuten lehenengo saria; bigarrenak, ostera, Murualdeko ordezkariak izan ziren.

Bi elkarte horiez gain beste hiru ere izan ziren: Urkulu; Larrinoko San Kristobal; eta Eguzki Alde. Eta epaimahaiko kide izan ziren Loramendi elkarteko hiru lagun. Egindako haragi-bolak afaldu zituzten gero elkartutako guztiek, eta afalostean kantari jardun zutela "giro ederrean" jakinarazi dute. Loramendiko kideek eskerrak eman gura diete parte-hartzaileei, batez ere Eguzki Alde elkarteari, eta "egon ez zirenak anima daitezela hurrengorako".

**Bolo eta doke txapelketak**
Elkarte arteko olinpiadak beste bi proba izango ditu. Batetik, maiatzaren 26an, Euskararen Egunean, egingo duten bolo txapelketa; eta bestetik, ekainaren 16an jokatuko den doke txapelketa. Orduantxe bukatuko dituzte aurtengo olinpiadak, eta irabazlea izendatu.

## Perkubic bikote perkusionistaren kontzertua bihar

Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak gonbidatuta Perkubic bikote perkusionistak kontzertua eskainiko du bihar, maiatzak 5, Arkupen (19:00); sarrera, debalde.

Gorka Saez de Ibarra (Gasteiz, 1984) eta Nestor Morales (Arrasate, 1982) perkusionistek osatzen dute Perkubic taldea. 2004an sortu zuten Euskal Herriko Goi Mailako Kontserbatorioan (Musikene), eta eurek konposatutako lanak eta beste estilo batzuetakoak –tangoa, jazza...– uztartzen dituzte emanaldietan.

## Preferentearen partidua ikustera joateko autobusa

Erregional preferentean jokatzen duen futbol taldea Legazpira joango da bihar Ilintxaren aurka jokatzera (16:30, Bikuña futbol zelaia), eta Gotzon Urtzelairen mutilek zaleen berotasuna behar dute hiru puntuak eskuratu eta mailari eusteko.

Hori horrela, autobusa antolatu du Aretxabaleta Kirol Elkarteak zaleendako; lehenbailehen komeni da izena ematea Gurea tabernan. Autobusa Ibarratik aterako da bihar, 14:45ean.

Aretxabaletako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada giro!

Gurea TABERNA
Lotoak eta kinielak
Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64



hemen bada giro!

IOSU taberna harategia
Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak
Mitarte 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 03 08



URBALTZ TABERNA
Mitarte 21 behea • 943 79 79 79 •ARETXABALETA

# "Garuneko paralisia duen alabaren esperientziatik sortu da antzezlana"

## 'Zu behar zaitut' antzezlana da Atxorrotz Eguneko egitarauko berrikuntza nagusia; haur desgaituen bizitza ezagutu ahal izango da

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA

Haur desgaituen eta adimen urrikoen bizitza ezagutzeko aukera izango da domekan Eskoriatzan egingo duten ipuin antzeztuan.

*Zu behar zaitut* izeneko antzerkia Eskoriatzako familia bateko kideek sortu dute. Familia horretako haur gazteenak, 7 urteko Lorenak, garun paralisia dauka jaiotzez, eta euren esperientzian oinarritutako istorioa kontatuko dute familia horretako amak, Marisol Andradek, eta 10 urteko seme zaharrenak, Unaik. "Gure beharrak plano pertsonalean daude, baina gizartean hutsune asko daude, eta horiek taularatu nahi ditugu, jendeak gure esperientzia ezagutzeko aukera izan dezan", esan digu Marisol Andradek.



Marisol Andrade, *Zu behar zaitut* antzerkiaren sortzailea. | A.T.

### Hutsunea aisialdian

Antzerkia eginda, aditzera eman gura dute desgaituen munduan, aisialdian, besteak beste, hutsunea dagoela. Izan ere, Andradek esan digu hemen inguruan ez dagoela 0 eta 20 urte bitarteko gazteendako aisialdira zuzendutako elkarterik, guztia Donostialdean egiten dela. Hala, elkarte bat sortu nahi dute, garuneko paralisiagatik haur desgaituak edota gabezia psikikoak edo fisikoak dituztenen gurasoei zuzendutakoa, euren kabuz laguntzak lortzeko eta haur horiendako ekintzak antolatu ahal izateko.

### Haur zein gurasoendako

Antzerkia haurrei eta gurasoei dago zuzenduta eta etxeko proiektu "sinple" bat dela azaldu digu Andradek, eurek egindako "ipuintxo" bat dela. Hala ere, gizartea sentsibilizatzeko mezu garrantzitsua daramana barnean. Helburu garbia dute antzezlanarekin: euren egoera beste batzuei transmititzea. Hauxe dio Andradek: "Garrantzitsuena da barruan daukaguna ondo transmititzea mezua ikus-entzuleen bihotzeraino eta garuneraino heltzeko. Esaldi polit batek dio: *Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu.* Hori jarriko dugu praktikan domekako antzezlanean".

### Atxorrotz Eguna

Domekan ospatuko den Atxorrotz egunaren egitarauan dago *Zu behar zaitut* antzezlana. Horrez gain, urteroko hitzorduak izango dira: Atxorrotzera igoera eta meza goizean, eta arratsaldean, berriz, antzerkiaz gain, herritarrek egindako tortillak salgai jarriko dituzte eta *Herrixa dantzan* ekimena egingo dute Ane Alberro dantza gidari dutela.

#### ATXORROTZEKO EGITARAUA

**09:00** Diana txistulariekin.

**09:30** Atxorrotzera igoera.

**11:00** Meza.

**17:00** *Zu behar zaitut* antzezlana. Ondoren, merienda izan bertaratutako umeendako.

**18:00** Herritarrek egindako tortillak salduko dira.

**18:00** *Herrixa dantzan* ekitaldia Jainaga eta Narbaizarekin.

# Herri bazkarirako txartelak salgai daude

## Inkernu, Aldatz eta Goxo Txikin eros daitezke datorren zapaturako txartelak

A.T. | ESKORIATZA

Aitzorrotz kultur elkartearen eguna ospatuko da datorren zapatuan, hilak 12, eta eguerdian egingo den herri bazkarirako txartelak salgai daude dagoeneko.

Txartelak 15 eurotan eros daitezke Inkernu, Aldatz eta Goxo Txikin, eta hauxe izango da aurtengo menua: pasta-entsalada, oilaskoa saltsan eta postrea. Kafea eta edaria ere prezioaren barne daude. Bazkaria herriko plazan izango da.

Txartelak, beraz, salgai daude dagoeneko eta Aitzorrotz kultur elkarteko Iñaki Kortazarrek esan digu herritarrak hasi direla bazkarirako txartelak erosten, eta badagoela mugimendua.

### 110 txartel

Guztira, 110 txartel jarri dituzte salgai aurten, eta eguaztena, hilak 9, izango da bazkarirako txartelak erosteko azkenengo eguna. Antolatzaileek aholkatzen dute jendeak "ahalik eta lasterren" erosteko txartelak, "animatzeko eta txartelak erosteko", aurtengo Aitzorrotz kultur elkartearen eguna ere ekitaldiz beteta datorrelako.

Tartean, bazkaldu aurretik eta ostean bertsolariak izango dira jai giroarekin jarraitzeko, eta arratsaldean kontzertuak izango dira Inkernu tabernaren kanpoko aldean, eguna ospatzen jarraitzeko.

# Erakusketa ibiltaria atez atekoa ezagutzeko

A.T. | ESKORIATZA

Hondakinen inguruko informazio kanpainarekin jarraituta, Eskoitza Zero Zabor taldeak, Udalaren laguntzarekin, beste ekimen bat antolatu du egunotarako.

Gaur, egubakoitza, eta etzi, domeka, erakusketa ibiltaria jarriko dute ikusgai herriko bi lekutan. Gaurko erakusketa 18:00etan izango da Intxaurtxuetan eta domekakoa, berriz, 18:00etan herriko plazan.

Erakusketa ibiltari horretan, hondakinen kudeaketaren inguruan sortu diren arazoak ezagutu eta atez ateko hondakin bilketaren inguruko zalantzak argitzeko aukera izango du edozein herritarrek.

Gertutik ikusi ahal izango da zer den zintzilikario edo konpostagailu bat. Organikoak jasotzeko kuboa nolakoa den ere ikusi ahal izango da, eta konposta edo errefusa zehazki zer den ere jakin ahal izango da. Atez atekoaren gaineko kezkak argitzeko modua izango da, beraz, egunotan.

## OHARRAK

**MAHAI-JOLASAK**
Gaur, egubakoitza, Tortolis ludotekan mahai-jolasak egingo dituzte bertaratzen diren umeekin, arratsaldeko seietan hasita.

**AUZOLANA**
Depositu zaharra garbitzeko eta txukuntzeko auzolana egingo dute bihar, zapatua, 09:00etan, Eingeinkek antolatuta.

**KIROL HITZORDUA**
Domekan, 10:30ean, lehen erregional mailako areto-futbola izango da. Eskoriatza KE taldeak indarrak neurtuko ditu San Martin CDF taldearen kontra.

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI
KONPONKETAK:
Txapa
Margoa
Mekanika
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 40 10 • Faxa: 943 71 31 45

# Hondakinen kudeaketa aztergai gaur eta hilaren 11n udaletxean

E.M. | BERGARA

*Orainari begiratu bat, etorkizunari aukera bat* jardunaldiak antolatu ditu Udalak. Antolatzaileen arabera, hondakinen kudeaketaren gaia marko orokorragoan kokatzea da helburua, eta, besteak beste, gaur egungo eta etorkizuneko gizarte eta bizimoduaz, deshazkundeaz eta bestelako bizimodu baterako aukerez jardungo dute, "etorkizuneko Bergara eraikitzeko beste pauso bat, bergararron etorkizunarendako beste aukera bat".

Gaur, egubakoitza, izango da lehenbiziko saioa udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 18:30ean. Joseba Azkarraga, MUko Lanki ikertegikoa, *Etorkizuneko gizarteaz, biharko bizimoduaz* gaiaz mintzatuko da eta genero ikuspegian aditua den Oihane Ruiz arkitektoak eta Kimetz E. Munitxa ingeniariak *Deshazkundea eta lurraldearen antolamendua* gaia jorratuko dute. Hilaren 11n, ordu eta toki berean, Iñigo Iñurrategi bergarararren (MUko Lanki) txanda izango da.

**Carlos Ormazabal, Irizarren**

Bestalde, EAJk zaborren kudeaketaren gaineko hitzaldia iragarri du eguaztenerako, hilaren 9rako. Carlos Ormazabalek, Garapen Iraunkorreko Diputatu ohiak, egingo du hitzaldia, Irizarren, 19:30ean.

# 'Egubakoitzak kartzelan': lehenbiziko saioa Anari eta Joseba Irazokirekin gaur

E.M. | BERGARA

Kartzela zaharreko kanpoko agertokia kontzertu lasaiekin betetzeko asmoz, hirugarren aldiz antolatu dute *Egubakoitzak kartzelan*. Gaur izango da lehen saioa, Anari eta Joseba Irazokiren eskutik, 22:00etan. Sarrerak, 3 eurotan. Bestalde, bihar, zapatua, Kaleko Urdangak-en *Eman ba!* diskoaren aurkezpen festa izango da, 22:00etan.

**Antzezlana domekan**

Etzi, domeka, *IMPRoVISIBLES clown* taldearen umorezko antzezlana izango da gaztetxean, 18:30ean. Umorea eta inprobisazioa dira ardatzak. Amaia Arriaran dugu aktoreetako bat.



Mamadou Sarr eta Eli Dominguez. | E.M.

# Ndank Ndank elkartearen aurkezpena gaur Irizarren

EDU MENDIBIL | BERGARA

Ndank Ndank elkartearen aurkezpena egingo dute gaur, egubakoitza, Irizarren, 18:30ean. Herrian dauden senegaldarrekin batera sortutako elkartea da eta, besteak beste, Senegalen garapen proiektuak aurrera eramatea du helburu. Hogei bat lagun ari dira taldean. Taldeko kideak egubakoitzero batzen dira kultura etxean, 17:00etatik 19:00etara, eta ateak zabalik dituztela gogoratu nahi dute arduradunek.

**Bi helburu**

Elkarteak bi helburu nagusi ditu: euskaldunen eta senegaldarren arteko elkartrukea bultzatzea, batetik, eta Senegalen garapen proiektuak gauzatzea, bestetik.

Gaurko aurkezpen ekitaldian, Abdoullay Gueyek Senegalgo hezkuntza eta osasun sistemen berri emango du. Musika ere izango da aurkezpenean.

*Poliki-poliki* esan nahi du Ndank Ndank-ek, eta mantso-mantso baina tinko jardun nahi dute elkarteko kideek. Dagoeneko lehen urratsak egiten ari dira, elkarlanean, Bergarako senegaldarrak eta herritarrak.

Mamadou Sarr ezaguna da elkarteko presidentea, eta, esan bezala, edozeinen laguntza jasotzeko gertu daudela azpimarratu nahi du.

## OHARRAK

**UDAL AURREKONTUAREN AURKEZPENA**

Udal Gobernuak aurrekontua aurkeztuko du herritarren aurrean eguenean, hilaren 10ean, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. Interesa duten herritar guztiak daude gonbi- datuta aurkezpenera.

**MANIFESTAZIOA BILBON**

Eleak mugimenduak deituta, epaiketa politikoen aurka eta proiektu guztiak aukera berdintasunean defendatzeko eskubidearen alde manifestazioa izango da bihar, zapatua, Bilbon. Bergaratik autobusa aterako da 16:00etan. Izen-ematea Arrano taberna.

**AUTOESTIMU IKASTAROA**

Bizikasiren eskutik autoestimu ikastaroa izango da maiatzeko eguaztenetan Miguel Altuna institutuan, 18:00etatik 20:00etara. Maiatzaren 9an izango da lehen saioa. Argibideak eta izen-ematea (25 euro) 943 76 23 94 zenbakian.

**POL-POLEKO BATZARRA**

Pol-Pol elkarteak ezohiko batzarra deitu du maiatzaren 23rako. Elkartearen lokal berrian egingo dute, Udal Pilotalekuko lehen solairuan, lehen deialdian 18:30ean eta bigarrenean 19:30ean.



# Senegalera bidean Anelkarren laguntza

Interneterako aukera duen ziber-gela eta irakurzaletasuna bultzatzeko liburutegia egitea dira Anelkarren 2012rako helburu nagusiak

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Anelkarrek, Antzuolako eskolarekin batera, kanpaina bat abiarazi du Senegalera materiala bidaltzeko. Hala, eskolako materialaz betetako kamioia Senegalera bidean da. "Aurten, 66 koaderno, 3 koaderno txiki, 71 zorrozkailu, 131 boligrafo, 67 borragoma, 394 arkatz, 20 motxila eta 3 ordenagailu batu ditugu, oso pozik gaude jendearen borondatearekin", azaldu digu Juanita Zabalok. 2002a ezkero, Senegalgo Diembering herriak Anelkarren laguntza jaso du. Hamar urte hauetan, laguntza ekonomikoaz gain, Anelkarko eta ibarreko zenbait lagun, urtero-urtero, bizpahiru hilabeterako hara joaten da. Tartean, Kristina Bakaikoa antzuolarra. "Guk laguntza eramaten dugu, baina herritarren inplikazioa oso handia da. Proiektu guztiak auto-jasangarriak dira eta bertako agintariek jarraipena egiten diote, garapenerako ezinbestekoa da-eta".

"Orain dela 5 urte, Bartzelonako elkartasun karabanarekin lanean hasi ginen. Kaxa bakoitzak 15 euroko kostua du. Bartzelonatik Dakarrera itsasontziz doa materiala. Han garraiolaria kontratatu, eta Senegal osora banatzen du hemengo materiala.


Anelkarko kideak Diembering herrian, Senegalen. | KRISTINA BAKAIKOA


Anelkarrek materiala zenbatu zuen barikuan Olaranen. | MAIDER ARREGI

**2012rako helburuak**

Ziber-gela eta liburutegia egitea da asmoa: "Aiherrarekin kanpaina bat abiatu genuen, eta frantsesezko liburuak eman dizkigute Senegalera eramateko, bertako hizkuntza nagusietako bat da-eta. Proiektua auto-jasangarria denez, lokala eurek jarriko lukete eta guk materiala eraman eta margotu, egokitu. Gainera, hiru ordenagailu ditugu, bi Goizperrek emandakoak eta bestea etxean neukana". Herrian ez dute Internetik, oso zaila dute; eta beste herri batera desplazatu beharra daukatela taxia garesti ordainduta azaldu digu Bakaikoak: "Ziber-gelan Interneterako konexioa jarri nahi dugu, eta, aprobetxatuz, liburutegia, irakurtzeko ohitura handirik ez dute-eta. Luzera begira, ikastaro ezberdinak –elektrizitatea, iturgintza... tailerrak– emango genituzke herritarrei formazioan laguntza emateko", dio.

Bakaikoa erizaina da, eta amatasun gelan egoten dela azaldu digu: "Anbulatorioa gertu dute, baina ez dute dirurik ordaintzeko. Beraz, ez dituzte zauriak sendatzen eta gaiztotu egiten zaie, inguruan saneamendurik ez dagoelako. Guk erditzen laguntzen diegu eta zauriak sendatzen ditugu", azaldu digu.

## Sahara ezagutzeko aukera gaur, egubakoitza, Olaranen

**M.A** | ANTZUOLA

Iaz bezala, aurten ere Sahara eta sahararren egoera eta bizimodua ezagutzeko aukera izango da herrian. Hala, arratsaldeko zazpietan Olaranen *Ba ahal dakite gure seme-alabek eta guk geuk nola bizi diren Saharan?* izeneko bideo emanaldia izango da ikusgai nahi duen ororendako.

Bestalde, maiatzaren 11n, egubakoitzean, Oporrak Bakean programaren bidez, ume saharrak udan etxean hartzeko familientzako bilera informatiboa izango da. Urtero moduan, familia beharra dago umeak Saharatik bi hilabetez baldin bada ere ateratzeko. Interesa dutenek eta ume saharrak jasotzeko prest dauden familiek arratsaldeko zazpietan Olaranen dute hitzordua.

**Maiatzeko lehiaketak**

Abian da balkoi eta leihoetako lore apainketa lehiaketa. Sari banaketa Antzuolako jaietako egubakoitzean, uztailaren 13an, izango da.

Bestalde, gogoratu behar da gaur dela azken eguna *Antzuola eta antzuolarrak* argazki lehiaketan parte hartzeko. Kukumarro lehiaketan parte hartzeko epea, aldiz, maiatzaren 16ra arte dago zabalik.

NIRE USTEZ


**ANTONIO DEOGRACIAS**

## Non dira urte eder haiek? (I)

Nik 17 urte bete berri nituela, kontua eskatu eta etxetik alde egitea erabaki nuen. Adin bereko lankide ohi batekin, ezer esan barik, Madril aldera alde egin genuen, arratsalde batez. Famatuak izan nahi genuen. Adingabekoak izan arren, ez zen salaketarik egon. Sasoi hartan ez zegoen horrenbesteko txorakeria mediatikorik. "Etxetik kapritxoz joaten dena ezinbestean bueltatzen da", esan zuen gure aitak.

Hogei egunera itzuli ginen, burua makur, finikitu barik eta goseak janda. Ez zen egon seme iriolearen alegiarik. "Hurrengorako eskarmentu ederra jaso duzula espero dut", zioen aitak, "baina atzera joan nahi baduzu, hortxe atea". Ez zen besterik egon.

Handik bi egunera enpresan ginen atzera, lan eske. Etxean ez zen inoiz gertatutakoaz berba egin. Baina zerbaitez kexatu orduko, "joan zaitez Madril aldera, ia hoberik topatzen duzun", esaten zidaten.

Nagusitan, urte haiek non diren galdetuta, "urteekin ametsak ere badoaz", esaten zidan herenegun kinto batek.

Gaurko egunez, oraindik ere, tristura dut bihotzean urte haiek gogora ekartzen ditudanean, eta, tarteka, negar malko batek masailean behera ihes egiten didala igartzen dut.

**"Urte haiek gogoratzean bihotzean tristura dut"**


LILURA
EDERTZE INSTITUTUA
Has zaitez UDARAKO prestatzen!
GORPUTZ TRATAMENDU pertsonalizatuak
Etor zaitez eta informa zaitez konpromiso barik!
Bidekurutzeta 7 1 a. 20570 • Bergara • Tel.: 943 76 31 71
lilura@lilura.com • www.lilura.com
Profesionaltasuna – Segurtasuna – Tratamendu pertsonalizatuak – Arreta pertsonala - Konfiantza



Mururako errepidea oso egoera txarrean dago; asfaltatzea eta zabaltzea lehentasunak dira Udalarendako. | JOKIN BEREZIARTUA

# Muru auzorako bidea egokitzeari lehentasuna emango dio Udalak

## Hilaren 7an ez ohiko osokoa egingo da Diputazioari dirulaguntza eskatzeko

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Ez da albiste berria Muru auzoan obrak beharrezkoak direla. Saneamendu lanak –ur zikinen eta euri uren sarea berritzea– eta batez ere auzorako errepidea egokitzea dira egin beharreko lan nagusiak. Udalaren arabera, aurreko legealdian Arabako Diputazioak, Foru Planean emandako murrizketak zirela-eta, atzera bota zuen obrak egiteko dirulaguntza. Horregatik Udalak ez ditu Muruko lanak 2012ko aurrekontuan sartu. Hala ere, Andoni Solupe Hirigintza zinegotziaren arabera Muruko lanak "erabateko lehentasuna" direnez, datorren astean dirulaguntza eskatuko dute berriro ere, 2012 eta 2015 arteko Foru Planaren barruan gauza daitezen. Soluperen arabera, bilera ezberdinak egin dituzte auzo alkatearekin eta beste zenbait auzotarrekin egoera nola dagoen azaltzeko.

Maiatzaren 9a da dirulaguntza eskatzeko azken eguna eta Udalak dokumentazio guztia gertu duen arren, osoko bilkuran onartu beharra dago. Hala, datorren astelehenean, hilak 7, ez ohiko osoko bilkura deitu dute. Obren aurrekontua 365.659 eurokoa da eta Udalak espero du 2013an hasiko direla lanokin.

**14 urte itxaroten**

Luis Arana auzotarraren arabera, 14 urte daramate obrak noiz hasiko diren itxaroten: "14 urte dira errepidea Udalari utzi genionetik eta orduan esan ziguten errepidea konpontzearena euren ardura izango zela. Ordutik ez da ezertxo ere egin, ez dute segurtasun kontuengatik eskatutako bazter-babesa jarri ere". Horrez gain, Aranak gaineratu du larrialdi kasuetan egoera oso zaila izaten dela: "Anbulantziek ez dute hona etortzerik nahi izaten eta behin, sute bat izan zenean, suhiltzaileek ezin izan zuten hemendik pasa errepidea oso estua delako. Errua aurreko udalbatzarena da, ez ziguten kasurik egin".

### Txirritolaren esaldi lehiaketa: gaur hasten da izena emateko epea

Txirritolak gaur irekiko du San Martin jaietan zapietan joango diren esaldiak aukeratzeko lehiaketa, hilaren 30era arte. Euskararen erabilera bultzatzea da ekimenaren helburua eta Aramaion bizi den edonork har dezake parte. Parte hartzaile bakoitzak bi esaldi aurkez ditzake gehienez eta hiru onenendako sariak egongo dira.

### Hilaren 25a baino lehen eman behar da izena udalekuetarako

Udalekuetan parte hartu gura duten haurrek maiatzaren 25a baino lehen eman behar dute izena, udaletxean edo San Martin eskolan. Izen-emate orria beteta eta Udalak, Euskadiko Kutxa edo Vital Kutxan duen kontu korronte zenbakian, haurraren izenean 36 euroko ordainketa egin dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar dira.

# Punk-rock doinu artean gustura ibili ziren, euriari aurre eginez

**J.B.** | ARAMAIO

Zapatuan punk-rock jaialdia egin zuten San Martin eskolaren azpian. Aramaioko eta inguruko herrietako zortzi talde igo ziren eskola azpiko agertokira: El Trio Calavera, Alarma Gorria, El Exterminio de la Raza del Mono, Desorden, The Boobys, No Hope, Krisis eta Dirty Brothers. Punk-rock doinuak nagusi, baina talde bakoitzak bere ukitua emanda.

Lidergo Ekintzaile eta Berritzaile ikasketak egiten dabilen Edurne Kortabarria aramaioarra aritu zen antolatzaile lanetan, Andoni Ariño arrasatearrarekin batera. Ikasturteko helburua enpresa bat zerotik abiaraztea da, eta jaialdia enpresa berri horrendako dirua lortzeko antolatu zuten. Gustuko musika da eurendako, eta horregatik antolatu zuten.

**"Antolakuntza lan handia"**

Kortabarria pozik zegoen jaialdia orokorrean ondo irten zelako, baina antolakuntza lan handia izan zela adierazi digu: "Lan gehiegi dauka halako kontzertu bat antolatzeak. Zortzi talde izanda, hilabete bat lehenago hasi behar da antolatzen, gutxienez. Jende asko egon zen eta kanpotik etorritako jendeak oso ondo pasa zuen. Euriak ez zion jendeari kontzertua ikusteko gogoa kendu".



*Olazi*, Dirty Brothers taldeko bateria jolea, zuzenean. | E. KORTABARRIA



TXIRRITOLA EUSKARA ELKARTEA

# 50 ipuin jasota, pozik daude Txirritolakoak lehiaketarekin

Apirilaren 27an egin zuten Txirritolaren ipuin lehiaketaren sari banaketa. Pozik daude parte hartzearekin, 50 lan jaso dituzte–eta. Ikasleen artean hauek dira irabazleak: Aitor Pascual (3. maila), Maddi Eriz (4. maila), Martin Abarrategi (5. maila) eta Jon Herrarte (6. maila). Helduen artean Alaitz Gabilondo eta Jone Arriolabengoarendako izan da saria. "Oso lan onak" direnez, saria biek merezi dutela erabaki du epaimahaiak. Gainera, antolatzaileek lanok beste era batera argitaratzea pentsatzen dabiltza.




ARAMAIOKO 'HERRIRA'

# 'Kanto' etxera ekartzeko deia Udalak eta 'Herrira'-k

Apirilaren 25eko osoko bilkuran, Aramaioko *Herrira*-k mozioa aurkeztu zuen *Parot doktrina* gaitzetsi eta espetxean 24 urte daramatzan Luis Mari Azkargorta *Kanto* preso aramaioarraren etxeratzea eskatzeko. Mozioa onartu egin zen, Bildu eta Aramaioko Alkartasunaren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin. Horrez gain, apirileko azken egubakoitzeko elkarretaratzean 30 lagun bildu ziren *Kanto*-ri eta haren senideei babesa emateko. Postalak ere banatu zituzten, gura duenak idatz diezaion.

ELGETA

### Julen Uribe berriztarraren jazz argazkiak ikusgai

Maiatz amaierara arte egongo dira ikusgai Espaloia kafe antzokian Julen Uribe berriztarrak Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Elgetan ateratako argazkiak.

Jazz musika gustuko du Uribek, eta hainbat tokitan izan da argazkiak ateratzen. Bill Evansek Espaloian egindako kontzertuan ere izan zen; argazkia ikusgai dago.

### Goi mailako magoak gaur, bihar eta etzi VIII. Magia Mostran

Areto barruko bi ikuskizun eta kaleko bi saio dakartza VIII. Magia Mostrak. Antzokiko bi saioak 22:30ean hasiko dira; sarrerak 15 eurotan —barikua—, eta 18 eurotan —zapatua— daude. Bazkideendako bi sarrera 23 eurotan. Kaleko ikuskizunak zapatuan 18:30ean, eta domekan 13:00etan egingo dira. Eguraldiaren arabera erabakiko da non egin. Doan dira biak.

### Ozkarbi eguna ospatuko dute zapatuan, maiatzak 5

Afaria egingo dute zapatuan 21:30ean Ozkarbi elkarteko kideek. Aurrez txikiteoa eta ondotik dantzaldia egingo dituztela jakinarazi dute antolatzaileek.

Erretiratuek, bestalde, dantzaldirako abisua jaso dute udaletxetik. Maiatzaren 12an, zapatua, egingo dute Espaloian 17:00etan hasita.

### Domekan maiatzeko lehenengo bisita gidatua lubakietara

Apirilean egindako 75. urteurreneko ekitaldien ostean ohiko maiztasunera itzultzen dira Intxortako ibilbide tematikora egiten diren bisita gidatuak. Hala, domekan 10:00etan abiatuko da taldea Espaloiko interpretazio gunetik eta hurrengo bisita hilaren 27an egingo dute. Interesatuek izena eman behar dute.

## Ezker abertzaleak militarren "desfilatze obszenoa" salatu du

**L.Z.** | ELGETA

Hautsak harrotu dituzte apirilaren 24an Espainiako armadak Elgetan egindako maniobra militarrek, eta Elgetako ezker abertzaleak ere probokazio oso larritzat jo ditu maniobrok. "Espainiako armadak apirilaren 24an, tropa faxistak Elgetan sartu zireneko 75. urtemuga aukeratu izana bertan maniobrak egiteko probokazio oso larria da", adierazi du taldeak ohar baten bidez, eta gaineratu dute Gobernu espainiarra dela armada espainiarrak eginiko probokazio ariketaren erantzulea, "maniobra hauei gobernuak bere babesa adierazi baitie".

**Memoriari irain mingarria**

Elgetako ezker abertzaleak, bestalde, elgetarren memoriari egindako irain mingarria eta herria berriro militarki hartzea sinbolizatu izana gogor salatu ditu. "Duela 75 urte tropa faxistek Elgeta hartu ondoren egindako erasoak, bortxaketak, torturak eta hilketak jasandako elgetarren memoriari irain mingarria da, lehenengo eta bat. Herria berriro ere militarki hartzea sinbolizatu du Espainiar armadak (...) Elgetan zehar egindako desfilatze obszeno horrekin. Altxamendu faxista hartan gailendu zen armadaren ondorengoek, berriro ere agerian utzi dute Hego Euskal Herrian arma bidez inposatzen den proiektu bakarra espainiarra dela".

**Esanahi politiko larria**

Hala, Elgetako ezker abertzaleak eskatu du "indar okupatzaileek Elgetatik nahiz Euskal Herritik alde egin dezatela", izan ere honakoak esanahi politiko larriko ekintzak direla uste dute. "Esanahi politiko larria daukate, bai Elgetan Espainiar armadak egindako agerraldiak, bai aurreko egun eta asteetan Hego Euskal Herriko errepideetan biderkatu diren Guardia Zibilaren kontrolek ere".



L.Z.

### Ekainean berriz ere plazara

Eguraldi txarra egin zuen apirilaren 23an, Liburuen Nazioarteko egunean, eta lehenengo orduan jende apur bat ibili bazen ere 18:30erako batu zituen plazara jaitsitako liburuak Maria Elena Eztenaga liburuzainak. Udalak ikusgai ipinitako udal dokumentu historikoak ere inork gutxik ikusi zituen. Horregatik ekainean ekimena errepikatzea erabaki dute arduradunek. Eguna erabakitzeko dago.



Salbador ermita ondoan dagoen bolatokia, gaur egun. | L.Z.

## Estali egingo dute Salbadorko bolatokia

Mendi nekazaritzak, berriz, Pagandiko urak Ibur errekara bideratzeko lanak finantzatuko ditu

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Martxa onean doaz Domingo Iturbe patronatuaren eraikineko lanak. Oxel Erostarbe alkateak Goiena telebistako *Harira* saioan esan zuen: "Uste dut lanak irailerako-edo bukatuko direla, eta eskolak edukiko duela jolastoki estalia". Garbitu ederra eman diote inguruari Goitu enpresako langileek. Harriak, teilak, egurrak... materiala guztia erretiratzen ari dira.

**Habeak bolatokira**

Egurrezko habe lodiak Salbador ermitara eraman dituzte, izan ere, asmoa da materiala horrekin Salbadorren dagoen bolatokia auzolanean estaltzea. Urtean behin, Salbador eguneko ospakizunetan erabiltzen da bolatoki hori, eta urtero egokitu behar izaten da egun horretarako. Estalita badago pentsatzekoa da egoera hobean mantenduko dela.

**Lanak Pagandin**

Udalak, bestalde, Mendi Nekazaritzatik dirulaguntzak eskuratu ditu bi proiektu aurrera eramateko. Aurten, Egoetxeagatik Eguarbitzarako bidean dagoen Pagandi gunean egingo dituzte lanak. Bidegurutze horretan urak bideratu barik daude, eta goitik behera datoz edozelan. Asmoa da urak kanalizatu eta Ibur errekarantz bideratzea.

Bigarren dirulaguntza Mendikute baserrirako bidean egokitzapen lanak egiteko da, baina ez dira datorren urtera arte egingo. Erreka gainetik pasatzen den zubiari babes-hesiak ipiniko dizkiote, eta baserrirako bide aldapatsuan lanak egingo dituzte hain labainkor izan ez dadin.

### Gabonetako pilota txapelketan ibiltzen diren lagunendako txangoa Errioxara

**L.Z.** | ELGETA

Maiatzaren 12rako, zapatua, antolatu dute txangoa Errioxako Trevianara. 09:30ean abiatuko dira Herriko plazatik, eta lagunartean egiteko txangoa izango da. Baina ez hori bakarrik, izan ere, bazkalostean 2012ko txapelketa antolatzen hasteko lehenengo batzarra egingo dute.

Interesatuek maiatzaren 7ra arteko epea dute Bolatokian izena emateko.

**Frontenis txapelketa**

Frontenis txapelketako bi finalak, berriz, maiatzaren 19ra atzeratu dituztela adierazi dute antolatzaileek. 12:00etan jokatuko dituzte udal pilotalekuan.

LEINTZ GATZAGA

## Landareekin txukunduko dute herria Gureleko kideek bihar

**MIRARI ALTUBE** | LEINTZ GATZAGA

Batzar orokorra egin zuen Gurel guraso elkarteak eguaztenean, eta diru kontuak eta ikasturterako zirriborroa aurkeztu zien bazkideei. Uztaileko udalekuak gertatzen ere hasi ziren orduan. Hori baino lehen, bihar, hain zuzen landareak landatu eta herriko bazterrak txukunduko dituzte ume eta gurasoek. Behin lan guztiak eginda Toki Eder elkartean bazkalduko dute eguna borobiltzeko.

Joan den astean, ostera, sukaldaritza energetikoaren gaineko ikastaroan jardun zuten sei lagunek. Teoria eskolen ostean jatekoak gertatu eta afari-merienda goxoa egin zuten.



Sukaldaritza energetikoaren gaineko ikastaroan Gureleko kideak. | M.A.

### Eugenio Otsoa alkatea Goienako 'Harira' saioan izango da martitzenean

Eugenio Otsoa elkarrizketatuko du Eneko Azkarate kazetariak Goiena telebistako *Harira* saioan maiatzaren 8an, martitzena (21:30). Ikus-entzuleek ere egin diezaiokete galderak zuzenean: telefonoz deituta (943 25 05 03) edo Twitter bidez (*#harira* traola erabilita). Galderak aurretik bidaltzeko, honako helbidera zuzendu: *harira@goiena.com*.

ESKUBALOIA

# Ford Mugarri Arrasate, Aloñaren pausoen atzetik, hamar urte geroago

## Oñatiko eskubaloi taldeak 2002ko maiatzean lortu zuen Lehen Nazional mailara igotzea; Ford Mugarri Arrasateren txanda da orain

X.URTZELAI / M.BIKUÑA | ARRASATE

Ford Mugarri Arrasate denboraldiko hitzordu garrantzitsuenaren atarian dago, Oñatiko taldea duela 10 urte zegoen moduan –eguenean bete zen Aloña nazionalera igo zeneko 10. urteurrena. Ane Herreroren taldeak, berriz, gaurtik domekara arte jokatuko du Lehen Nazional mailara igotzeko fase erabakigarria (goizean abiatu dira Gijonera) eta Braulio Garcia kiroldegian batuko diren lau ordezkarien artean onenak baino ez du igoerako txartela eskuratuko.

Arrasatekoek helburu zaila dutela jakinda abiatu dira Asturias aldera, baina iaz Bartzelonan jokatutako faseak emandako esperientziak, eta batez ere aurten erakutsitako mailak erakusten dute posible dela, Arrasate mailaz igo daitekeela.

**Kontrario gogorrak**

Ford Mugarri Arrasatek Aragoiko txapelduna (Huesca), Asturiasko txapelduna (Covadonga) eta Galiziako txapeldunordea (Academia Octavio) izango ditu aurrean. Hiru kontrario horietako bi –Huesca eta Academia Octavio– Asobal mailan jokatzen duten kluben harrobi-taldeak dira, eta igoera fasean probetxu handia aterako diote horri: "Seguru goiko taldeko jokalarien laguntza izango dutela", adierazi digu Ane Herrerok. Eta hirugarren ordezkariak, Covadongak, apustua –ekonomikoa– egin du fase erabakigarria Gijonera eraman eta etxean jokatuta taldeak abantaila izateko. Hain zuzen ere, Oñatiko taldeak gauza bera egin zuen Lehen Nazional mailara igo zirenean; igoera fasea Zubikoara ekarri, eta etxean indartsu jokatuta mailaz igo ziren.

**Baja garrantzitsu barik**

Denboraldia amaitu eta liga irabazi zutenetik igoera fasea prestatzen buru-belarri ibili dira Arrasatekoak. Min hartutako jokalaririk ez badago ere, Herrerok onartu digu bat edo beste fisikoki justu samar dagoela, denboraldi luzea izan delako. Eta hain zuzen, asteburu berean hiru partidu jarraian jokatuta bistan da arlo fisikoak aparteko garrantzia izango duela. Ez horrek bakarrik, baita ondo hasteak ere: "Academia Octavioren kontrako partidua oso garrantzitsua izango dela uste dut, ondo hasteak moralki sekulako indarra emango ligukeelako". Hala, iazko ahaleginaren ostean asteburuan dute mailaz igotzeko beste aukera bat: "Aspaldiko desioa da Arrasatek maila horretan ordezkaritza izatea, eta, pastel honi ginda jartzeko modu ezin hobea izango litzateke".

**ANE HERRERO** | FORD MUGARRIKO ENTRENATZAILEA

### "Partidu batetik bestera ondo errekuperatzean egon daiteke gakoa"


Ane Herrero. | GOIENA

Denboraldiko une garrantzitsuenaren atarian dago Ford Mugarrri Arrasate, eta Gijonera abiatu aurretik entrenatzailearekin izan da Arrasate Irratia.

**Urteko une garrantzitsuena da hau.**

Bai, igoera faseak dakarrenagatik, baita zailena ere, maila altuko hiru talde izango ditugulako aurrean, eta hiru egunetan jarraian jokatu beharko dugulako.

**Ondo errekuperatzean egon daiteke gakoa?**

Nire ustez oso garrantzitsua izango da hori, partidu batetik bestera ondo errekuperatzen denak abantaila handia izango du. Azken egunotan hori ibili gara espreski entrenatzen, lan karga handiarekin. Eta azken aste hau lasaia izan da, lan psikologikoa egin dugu.

**Kontrario batzuk ordezkaritza dute Asobal mailan.**

Bai, eta maila horretako jokalarien kontra jokatuko dugu seguruenik, beheko taldeaz jokatuko dutelako. Esan dugu kontrario gogorrak izango ditugula, baina kontrara, talde horiek guk baino presio handiagoa izan dezakete.

### IGOERA FASEKO ORDUTEGIAK, GIJONEN

**EGUBAKOITZA**

**18:00** Covadonga – Huesca

**20:00** Ford Mugarri Arrasate – Academia Octavio

**ZAPATUA**

**18:00** Academia Octavio – RGC Covadonga

**20:00** Ford Mugarri Arrasate – BM Huesca

**DOMEKA**

**10:30** BM Huesca – Academia Octavio.

**12:30** RGC Covadonga – Ford Mugarri Arrasate


Ford Mugarri Euskadiko txapeldun izan berri, duela aste batzuk. | AMAIA TXINTXURRETA

ATLETISMOA

## Mari Sol Ramosek hiru domina eskuratu ditu masterren Mundialean

Aloña Mendiko korrikalariak hiru domina eskuratu ditu Finlandian, masterren Mundialean. Maratoi erdian urrezko bi domina irabazi zituen, bakarkako eta taldekako saioan –azpimarratzekoa 1.24.02ko marka– eta brontzea 3.000 metroko proban (11.05). Udan Belgikan, Polonian eta Txekian egingo duten Europako txapelketan egon nahi du.


Mari Sol Ramos. | GOIENA

MENDI LASTERKETA

## Ekainaren 11ra arte luzatu dute Ehun Miliak probako izen-ematea

Euskal Herriko iraupen luzeko proba entsutetsuenak hamar egunez luzatuko du izen-emate epea; antolatzaileek adierazi dutenez, izen-ematea martxa onean doa, baina jendea zain dago, uztailean ze gorputzalditan egongo den aurreikusi nahian. Hala, ekainaren 11ra arte eman ahal izango da izena *kirolprobak.com* helbidean.

MENDI BIZIKLETA

## Domekan egingo dute Musakolako mendiko bizikleta irteera

Musakolako Jai Komisioak antolatuta domekan egingo dute, maiatzaren 6an, mendi bizikleta irteera (35 km). Izen -ematea aurrez egin daiteke *www.musakola.com* webgunean (10 euro), eta egunean bertan 5 euro gehiago ordaindu beharko dira. Ziklistak Ziar-Ola elkarte ondotik irtengo dira, 09:00etan.

Leintz GARRAIOAK, S.L.

Leintz Garraioak, urbano zerbitzuaz gain,
**txangoak, ezkontzak, sagardotegiak e.a.**



**LEINTZ GARRAIOAK** S.L.
Musakola, 20 (Pereda)
20500 ARRASATE

**Tel.:** 943 71 27 07 / **Faxa:** 943 79 14 19
**Posta-e:** *leintzgarraioak@leintz.com*
*www.leintz.com*

# NAZIOARTEKO VIII. MAGIA MOSTRA

## 2012, MAIATZAK 4 - 5 eta 6

### ELGETAKO ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

**4 - BARIKUA** 22:30 MAGIA SAIOA
Prezioa: 15 €

**MagoMigue**
'AluCine' ikuskizun berriarekin



**Munduko Magia saria**
. Kartomagiako munduko txapelduna
. Publikoaren saria Elgetako 2006ko Magia Mostran

**5 - ZAPATUA** 22:30 MAGIA GALA
Prezioa: 18 €

**P-Cubique**
'Cubic Act'
- Ilusio handiak -
**Lehen saria Europako magia txapelketan**
. Lehen saria Frantziako magia txapelketan



**Enric Magoo**
'Frankie J.B.' ikuskizuna
- Magia komikoa -
**Mandrakes d'Or saria**
. Zilarrezko barita Montecarlon
. Magia komikoaren saria Lausanne hiriko jaialdian



**Charlie Mag**
'Gala ikuskizuna'
- Magia usoekin -
**Lehen saria mundu mailako mago gazteen txapelketan**
. Lehen saria Suitzan



**Silvana**
- Antzerki magia -
**Lehen saria Alemaniako Street Magic Festival jaialdian**
. Originaltasunaren saria Blackpool-eko jaialdian.



**6 - DOMEKA**
13:00 MAGIA KALEAN - Doan
. Brando eta Silvana. 'Circus'.
. Enric Magoo.



Sarrerak dagoeneko salgai. Bazkideendako bi ikuskizunetarako sarrerak: 23 € - www.espaloia.com - Tel.: 943 78 90 85

ANTOLATZAILEAK: Elgetako Espaloia Kafe Antzokia
BABESLEAK: Magialdia Vitoria-Gasteiz · Elgetako Udala · goiena Komunikazio Taldea
LAGUNTZAILEAK: Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco · Gipuzkoako Foru Aldundia – Diputación Foral de Gipuzkoa · Grupo Elcoro Decoletaje, S.L. · gizarte kutxa



Eskoriatzako neskak, ligan, Zarauzko Murgil Zast taldearen kontrako lehian. | JOSETXO ARANTZABAL

SASKIBALOIA

# Eskoriatzak Lauko Finala jokatuko du bihar, eta MUk Ordizia hartuko du

Eskoriatzako saskibaloi taldeak autobusa jarri du zaleak Oriora eramateko; 16:00etan hasiko da partidua; irabaziz gero domekan izango dute finala

XABIER URTZELAI | ESKORIATZA

Beste urte batzuetan bano zailtasun handiagoekin, baina aurten ere Eskoriatzako neskek lortu dute helburua: Lauko Finala jokatzea. Inma Murillorekin neskek liga erregularrean Bera Bera-ren kontrako partiduan lortu zuten fase erabakigarrirako txartela (54-51), eta horrek esan nahi du kategoriako lau talde onenen artean amaitu dutela denboraldia, Zarautz –Murkil Zast– Atletico de San Sebastian eta Cafes Aitonarekin batera.

Hain zuzen ere hiru talde horiekin egingo du topo, astebururuan, Orion jokatuko duten Lauko Finalean.

### Ohitura bilakatu da

Azken urteotan fase berezi hori jokatzera ohitu dira Eskoriatzakoak, denboraldia amaitzeko sari ederra. Hala ere, egia da azken urteotan Lauko Finalean aurrera egiteko kontrario gogorregiak izan dituztela.

### Denetariko emaitzak ligan

Ligan talde horien kontra jokatu dutenean Eskoriatzakoek denetariko emaitzak batu dituzte, eta ez dago jakiterik Lauko Finalerako erreferentzia moduan balio duten ala ez. Atleticoren kontra etxetik kanpo galdu egin zuten (49-32), eta etxean irabazi (48-38). Cafes Aitona ondo menderatu zuten ligan, etxean (52-38) eta kanpoan (53-54), eta Zarautz, berriz, gehiago izan da bi partiduetan. Hain zuzen, talde horren kontra jokatuko dute bihar lehenengo kanporaketa (16:00), eta 18:00etan jokatuko dute Atleticok eta Cafes Aitonak. Finala, ostera, domekan izango da (11:00).

### Biok Zerbitzuak taldea Iturripen

Joan den astean MUk Tabirakoren kantxan galdu ostean berriro ere estutu egin da sailkapena. Dena dela, Josu Larreategiren mutilek kategoriari eusteko aukera guztiekin jarraitzen dute, euren esku dago.

Hala, beste batzuen emaitzei begira ez egoteko MUk derrigor irabazi beharko dio bihar, zapatua, Biok Zerbitzuak taldeari (18:00). Durangora zale koadrila polita eraman zuen talde zuri–moreak; Iturripen ez dituzte gutxiago espero.

FUTBOLA

# Bizirik dago Mondra, eta mailari eutsi behar diola sinistuta

X.U. | ARRASATE

Bizirik, eta azkenera arte kontrario zuzenak estutzeko asmoz, halaxe dago Mondra (27). Berioren kontrako garaipena –luzapenean etorri zen 3-2koa, ez zen bihotzeko arazoak dituztenendako partidu aproposa izan– oso garrantzitsua izan da Arrasateko jokalariendako, moralki, batez ere.

Azken astean Elgoibarrek (29) eta Hondarribiak (30) kale egin izanak atzealdeko postuak estutu ditu eta orain hiru talde horiek daude borroka estuan; horietako batek eutsiko dio mailari. Sailkapenari begiratuta Mondra desabantailan dago, baina taldeko entrenatzaile Iker Zaitegik adierazi moduan: "Aurretik atzera datoz horiek, eta gu alderantziz ari gara, atzetik aurrera. Taldea lan mordoa egiten dabil aste hauetan, eta emaitzak partiduetan ikusten hasi gara. Hemendik irten gaitezkeela sinistuta gaude, nahiz eta badakigun zaila izango dela. Lau partidu geratzen zaizkigu, eta hiru puntuko aldea gainditu behar dugu; sinistuta gaude lortuko dugula".

Dena dela, Berioren kontrako garaipenaren ostean kalean entzundakoek ez diete grazia handirik egin Mondrakoei: "Norbaitek pentsatu du emaitza adostuta zegoela, Berion lagunak ditugulakoan-edo. Kaleko komentario horiek jokalarienganako errespetu falta dira; ez dut ulertzen jendeak zelan esan dezakeen halakorik. Mojategin Berioren kontrako partidua ikusi zuten zaleek ez dute halakorik pentsatuko". Hala, Mondrak Real Unionen zelaian jokatuko du bihar (15:30, Gal).

### Aloñak eta Bergarak derbia

Domekan, berriz, liga zeinek ondoen amaitu erabakitzeko derbia jokatuko dute Aloñak (40) eta Bergarak (44) Azkoagainen, 16:30ean. Aretxabaletak, azkenik, Lesakan jokatuko du domekan (16:30).

TXIRRINDULARITZA

# Iban Velasco zapatuan hasiko duten Italiako Giroan izango da

X.U. | ARRASATE

Euskaltel-Euskadi txirrindulari taldeko ordezkariak Danimarkan daude eguenaz geroztik, han hasiko dute-eta Italiako Giroko 67. ekitaldia. Talde laranjak seigarren aldiz hartuko du esku Giroan, eta aurreko urteotan parte-hartzea apartekoa izan ez bada ere, iaz aparteko protagonista bilakatu ziren, besteak beste, Zoncolanen eta Gardecchia Val di Fassan lortutako garaipenei esker.

Arrasateko txirrindulariarekin batera Mikel Nieve, Amets Txurruka, Juanjo Oroz, Miguel Minguez, Jon Izagirre, Pierre Cazaux, Victor Cabedo eta Adrian Saez de Arregi izango dira Giroan. Velasco dagoeneko beterano bilakatu da, ondo ezagutzen du-eta Giroa; Nieve izango da erreferentziazko gizona.



Iban Velasco. | X.U.



# KULTURA

# Trikiti eta panderoak bor-bor

▸ Adin tarte zabaleko 300 trikitilari eta pandero-jotzailek hartuko dute parte bihar

▸ Datorren urtean Elgetak izango du Trikitixa Eguna antolatzeko ohorea eta ardura

**MAIDER ARREGI** | ESKORIATZA

1993. urtean, Eskoriatzak Euskal Herriko trikitiaren festa jaso zuen. Bihar, zortzigarrenez egingo den Debagoieneko Trikitixa Eguna ospatuko dute. "Arrasaten, Aretxabaletan, Bergaran, Antzuolan, Oñatin, Soraluzen –herriak berak eskatuta– eta iaz Aramaion ospatu zen jaia. Eta Aramaiok Eskoriatzari pasatu dio orain testigua", azaldu digu Adolfo Jainaga trikitilari eta antolatzaileak. 18 urte daramatza Eskoriatzako Trikiti Eskolak lanean, eta 130 ikasletik gora pasatu dira bertatik.



Iaz Aramaion ospatu zuten Debagoieneko VII. Trikitixa Eguna. | GOIENA TALDEA

**Imuntzo eta Beloki**

300 soinu-jotzaile eta pandero-jotzailek Eskoriatzako kaleak hartuko dituzte. Goizean, hamaikak inguruan, batuko dira denak modakutxo bat hartzeko. Ondoren, kalejira egingo dute, eta eskola bakoitzak pieza bana joko du plazako agertokian, eguerdira arte. Gero, bazkaria egingo dute. "Bazkalostean, mahaiaren bueltan gure erromeriatxoa egiten dugu. Taldemultzo ezberdinetan aritzen gara, eta ordu eta erdiko saioa egingo da", azaldu digu Jainagak. Arratsalderako, aldiz, nahi dutenendako erromeria antolatu dute. Aurten, Imuntzo eta Belokiren doinuek girotuko dute iluntzea. "Izena duen taldea ekarri gura izaten dugu. Bestetan, Gozategi eta Trikizio taldeak ekarri izan ditugu".

**Perkusioa eta panderoa**

Hasi euskal musikatik, arin-arin, fandango, biribilketa, porrusalda, trikiti eta euskal folkloreko dantza inguruko piezetaraino –jauziak, esaterako– entzuteko aukera izango da bihar. Eta, nola ez, baita atzerriko doinuak ere: korrido mexikarrak, balsak, polkak... "Euskal soinu-jotzaile berrien abestiak ere izango dira protagonista, Esne Beltzarenak eta antzeko doinu ezagunak, besteak beste, abileziaren arabera", dio. Jainagak azaldu digu trikitiarendako ez dagoela adinik: "8 urterekin hasten dira gazteenak, eta hortik gora trikitiak ez dauka mugarik. 50, 60 eta 70 urtekoren bat ere etorriko da". Perkusioa eta, nola ez, panderoa ere protagonista izango dira bihar: "Txaramela, kriskitinak eta pandero hotsak, noski, denon gozamenerako".

**Trikitia osasuntsu**

Trikitiak gorabeherak izan dituela kontatu digu Jainagak: "Trikitiak etapa asko eduki ditu. Orain dela 150 urte iritsi zen Euskal Herrira, eta jaitsiera handiena gerra ostean bizi izan zuen, Francoren eta Elizaren jazarpenaren ondorioz, eta kultura zapalketa eta errepresioaren ondorioz, nagusiki". Trikitiak momentu gogorrak bizi izan zituen arren, gizarteko mugimenduei esker aurrera egin duela azaldu digu: "Faktore askok egin dute bat, soinu-jotzaile berriaren jaiotza, trikitiarekiko sormen berria... 90eko hamarkadako *boom*-ari bultzada eman zitzaion. Kepa Junkerak eta Joseba Tapiak hasita, eskolak sortu zituzten; eta Gozategi, Maixa eta Itziar, Alaitz eta Maider etorri ziren orduan".

Jendeak 10 bat urteko moda zela uste zuena egun indarrez dagoela garbi ikusi da. "Debagoienean ez du behera egin; mantendu egiten da eta batzuetan gora egiten du trikitiarekiko zaletasunak. Inguru honetan trikiti eskolak bete egiten dira; ez, aldiz, errotuta dauden beste instrumentu batzuk: txistuaren eta soinu handiaren kasuan, esaterako". Trikitia oso dinamikoa da, eta instrumentu horrek beste musika batzuekin bateratzen jakin duela azaldu digu; gazteekin bat egitea lortu duela, alegia.




Kartel iragarlea. | ESKORIATZAKO TRIKITIXA

**'Elgeta'-ri eskerrak**

*Elgeta* trikitilariak bere garaian iraultza ekarri zuen. Soinutik bizi izan zen lehenengotakoa da. Izan ere, 90eko hamarkadara arte soinu irakaslea ez zen profesionalizatu. "Gerra aurretik baserriz baserri soinua irakasten ibili zen, hortik bizi gura izan zuen, nahiz eta oso sasoi gogorra bizi izan errepresioaren ondorioz. Oso kritikatua izan zen bere bizimodua, baina aurre egitea lortu zuen. Modu txarrean hil zen arren, eskean eta pobre". Jazinto Rivasi, *Elgeta*-ri, asko zor diogu, hark irakatsi zien-eta Laja, Tapia edo Tolari. Eta, era berean, haiek oraingo generazioari eta egungo irakasleei transmititu diete. Izan ere, guztien aita da", dio Jainagak.

**EGITARAUA**

**11:00:** Ongietorria.

**11:30:** Kalejira.

**13:00:** Ekitaldia plazan.

**14:30:** Bazkaria.

**15:30:** Imuntzo eta Belokirekin erromeria.

**ESANAK**

**"Trikitiak ez dauka mugarik; 8 urterekin hasten dira, eta 70 urteko trikitilariak ditugu gurean"**

**"Debagoienean ez du behera egin trikitiak; mantendu egin da, eta, tarteka, gorakadak izaten ditu"**

**ADOLFO JAINAGA** | TRIKITILARIA

## Egurrezko taila Elgetarendako

Iaz, Aramaiok eman zion txanda Eskoriatzari. Aurten, berriz, Eskoriatzak Elgetari pasatuko dio Trikitixa Eguna ospatzeko testigua. "Eguerdiko ekitaldi bukaeran ekitaldi sinbolikoa egiten da eta testigua beste herri bati pasatzen zaio; aurtengo kasuan, Elgetari. Panderoaren txapak daramatzan egurrezko taila bat da testigua".

Oraingoz, zortzi herrik jaso dute egun hori antolatzeko ardura; orain, Elgetak bere talde-lana eta batzarrak egin beharko ditu, betiere, gainontzeko herriko eskolekin hartu-emanean.

# Aitor Arregi oñatiarraren 'Lagun mina' filma, saritua

## Donostian grabatutako 'Lagun mina' film laburraren gidoia egin du HUHEZIko irakasle oñatiarrak

**ARANTZAZU EZKIBEL** | OÑATI

2010 amaieran eta 2011 hasieran grabatu zuten *Lagun mina* film laburra. Jose Mari Goenagak zuzendutako lana da, eta Aitor Arregi oñatiarrak gidoia idatzi du. Lana aurkeztu zutenetik hainbat jaialditan eskaini dute, eta nabarmendu behar da harrera oso ona izan duela. Dagoeneko hainbat sari irabazi ditu. Azkena, apirilaren 14an jaso zuten, Madrilen. Creat Rivas jaialdian film labur onenaren saria jaso zuten. Gainerako sariak izan dira: Madrileko Cinemad11 jaialdian sari nagusia; Arrigorriagako jaialdian zuzendari onenaren saria; Salas de los Infantes jaialdian film labur onenaren saria; eta, Gasteizko euskal zinemaren jaialdian film labur onenaren saria.



Eriz Alberdi eta Diego Santos aktoreak. | MORIARTI

### 'El principito'-n oinarrituta

"Lander Camarero bilbotarrak ideia bat zuen buruan. *El principito* ipuinaren atal batean oinarrituta hiru herrialde ezberdinetan film labur bana egitea: Perun, Indian eta Euskal Herrian", dio Arregik. Hiru film horiek *What about Columbus?* dokumentalean batu ditu Camarerok. "Hiru baldintza jarri zizkigun: leialak izatea testuari, gure buruari eta baita gure kulturari ere".

Bi lagunen arteko harremanaz dihardu *Lagun mina* filmak. Oporretan daudela ezagutzen diren bi lagun dira Ekaitz eta Roman: bata euskalduna da eta bestea kolonbiarra –Eriz Alberdi eta Diego Santos dira aktoreak. Batak eta besteak adiskidetasuna nola ikusten duten azaltzen du filmak.

Huheziko irakasle lanaz gain, Moriarti produkzio-exeko partaide izaten jarraitzen du Arregik. *Lagun mina* filma Kimuak sailean aukeratua izan da.

# Jose de Azpiazu omenduko dute aurtengo Musikegunak edizioan

**A.E.** | OÑATI

Musika landuaz gozatzeko ekimena izaten da Oñatin antolatzen duten Musikegunak. Aurten 34. aldiz egingo dute ekimena. Entzuleen belarriak eta bihotzak gozatzea izaten da helburua nagusia, baina oraingoan, beste helburu bat ere izango du ekimenak: maisu handiak omentzea. Besteak beste, Jose de Azpiazu oñatiar maisu handia omenduko dute, haren jaiotzaren mendeurrena aprobetxatuta.

Zikloa Duo Hausokak zabalduko du domekan. Ander Telleria akordeoi-joleak eta Aitor Ukar gitarra-joleak eskainiko dute kontzertua Santa Anan.

### EGITARAUA

**Maiatzak 6**
Duo Hausoka.

**Maiatzak 13**
Salvador Trio.

**Maiatzak 20**
EASO eskolania. Gorka Miranda.

**Maiatzak 27:**
Eduardo Baranzano gitarra-jolea, Aida Briceño sopranoa eta Lucia Gomez mezzosopranoa.

**Oharra: Kontzertu guztiak Santa Ana aretoan izango dira, 19:30ean.**

### Mago Miguek zabalduko du gaur Elgetako Magia Mostra

Gaur, bihar eta etzi ospatuko dute Elgetan VIII. Magia Mostra. Mago Miguek *AluCine* ikuskizuna eskainiko du gaur, 22:30ean. Bihar, zapatua, Magia Gala egingo dute Enric Magoo, Cubic Act, Charlie Mag eta Silvanak, 22.30ean. Domekan, magia kalean, 13:00etan hasita, hainbat magorekin.

### Euspot lehiaketako sari banaketa martitzenean egingo dute Arkupen

Euspot euskarazko spot lehiaketara aurkeztutako bederatzi lanak Interneten daude ikusgai. Gainera, aukera dago domekara arte, maiatzak 6, publikoaren sarirako botoa emateko *www.euspot.eu* webgunean. Sari banaketa datorren martitzenean izango da, Arkupen, 19:00etan.






## MAIATZAK 4, OSTIRALA

**17:00-19:00** Kurtzetxiki plazan GAZTEENTZAKO JOLASAK eta guztientzat TXOKOLATE JANA.
**19:00** ETXAFUEGOAK.
**19:00** SANTA MARINAKO BATUKADAREKIN KALEJIRA.
**19:30** BURUHANDIEN IRTEERA.
**22:30** Gudarien plazan DJ FESTA Euskadi Gazteko OIHAN VEGAREKIN.

## MAIATZAK 5, LARUNBATA

**11:00** ETXAFUEGOAK.
**12:00** BETI JAI fanfarrearekin KALEJIRA.
**12:00-14:00** Bedoñabe eskolan UMEENTZAKO JOLASAK. Eskolako guraso elkarteak SALDA ETA TXISTORRA banatuko du, Arrasate Herri Eskolaren 10. urteurrena dela eta.
**14:30** Gudarien plazan HERRI BAZKARIA: Tiketa: 15 euro, hainbat tabernetan salgai.
**17:00-19:00** Bedoñabe eskolan UMEENTZAKO JOLAS ETA PUZGARRIAK.
**17:00-20:00** Hiruki plazan SEGWAY APARAILUETAN IBILTZEKO AUKERA izango da.
**19:30** BURUHANDIEN IRTEERA.
**22:30** "La risa va por Barrios" MONOLOGOA Rafa de la Llaveren eskutik.
Ondoren, Una noche sin Sabina taldearekin KONTZERTUA.

## MAIATZAK 6, IGANDEA

**11:00** ETXAFUEGOAK.
**12:30** Goikobalu Abesbatzarekin POTEOA.
**15:30** Urmai tabernan POKER TXAPELKETA.
**18:00** Gudarien plazan TXIKITXU DANTZA TALDEAREN EMANALDIA.

**ARANZABAL** SUKALDEAK • **AVENIDA** KAFETEGIA • **BITTORI** ERRETEGIA • **CEPINSA** MARGOAK
**EQUS** TABERNA • **ITXASO** KAFETEGIA • **IZASKUN** ARRANDEGIA • **KAPIKUA** OPARIAK ETA OSAGARRIAK
**KUKURUTXO** GOZOKI DENDA • **LIZARRALDE** KIROLAK • **LORAMENDI** KIROLAK
**MONDRAGON LINGUA** HIZKUNTZA ESKOLA • **PIPPOL** TABERNA
**RAOS** SARRAILA-DENDA 24 ORDU • **URRETXU** TABERNA

***ONDO PASAU JAIETAN!***

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Mobil homea Iratxen.** Nafarroako kanpinik onenean. 45 metro koadro ingurukoa. 6-8 pertsonarendako. Bikotearendako logela bat eta bi oheko bi logela. Jangela-egongela eta sukalde hornitua. Portxea eta lorategia. 686 77 04 97 edo jm.urrataxi@hotmail.com

**Oñati.** Etxebizitza salgai Errekalden 31n. Hiru logela, komuna, sukalde hornitua, egongela, balkoia garbiketa gunearekin. 80 metro koadro eta 7,20 metroko ganbararekin. Oso argitsua da. 184.100 eurotan tasatua dago eta prezioa adosteko. Deitu 653 73 08 03 telefono zenbakira.

**Saint Lary.** Estudioa salgai, Frantziako Pirinioetan. Pistetan bertan. Guztiz jantzia. Prezio negoziagarria. 664 12 22 11

### 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Dena kanpoaldera begira. Igogailua, lau logela, bi komun, sarrera, egongela eta sukaldea. Hornitua eta jantzia. 607 32 74 32

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Bolun. 82 metro koadrokoa. Hiru logela. 657 79 45 61

**Costa Ballena (Cadiz).** Udarako etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, bi bainu eta garajearekin. Hondartzatik oso gertu eta igerilekua urbanizazioan. Oso aproposa familian oporrak pasatzeko. Deitu zenbaki hauetara: 679 84 62 48 edo 648 03 21 53

**Oñati.** Errekalde auzoan. Hiru logela. Argitsua. Hornitua eta jantzia. Igogailua. Garajea ere alokatzeko aukera. Deitu zenbaki honetara 19:00etatik aurrera. 679 87 87 48

**Peñiscola.** Apartamentua ematen da errentan San Juan jaietan zein udarako. 2, 4 edo 5 pertsonarendako egokitua. Guztik jantzia. Ondartzatik 100 metrora. Igerilekua, aparkalekua eta igogailua. Deitu 670 66 64 13 edo 943 79 71 59 telefono zenbakietara.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. Hiru logelakoa eta aukeran igogailuarekin, edo lehen edo bigarren solairuan. Partikularren artekoa. Inaki. 689 45 06 98

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. Deitu 648 46 90 51 telefono zenbakira.

**Malaga.** Kostaldean etxebizitza hartuko genuke errentan abuzturako. Deitu 618 90 23 66 telefono zenbakira.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. Kontratuarekin. 678 73 66 54

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat alokagai dugu unibertsitate ondoan. Tel.: 630 71 35 83

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 620 52 94 98

**Arrasate.** Lau gelako etxea osatzeko gela bat errentan. Langileak bizi dira bertan. Etxea oso eguzkitsua da. Deitu 653 71 44 57 telefonora.

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** 16 metro koadroko garaje itxia salgai edo errentan, Iralabarri plazan. 659 44 86 79

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garajea ematen da errentan Larrea etxeen atzetik (Usaetxe enparantzan). 60 euro hilabetean. E-posta soliveira@hotmail.es. Kontaktua: Sergio. Edo deitu zenbaki honetara: 678 53 82 48

**Arrasate.** 15,5 metro koadroko garaje itxia saldu edo errentan ematen da erdigunean. Kontzeziño-Iturbide egoitza artean. 628 14 92 74

## 3. LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Aramaion lokala.** Aramaioko gazte talde bat lokal bila. 630 43 31 17 edo 665 75 79 57

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta, Arrasate edo Bergaran.** emakumea lan desberdinak egiteko gertu: garbiketa lanak, nagusiak zaindu. 647 10 58 72

**Arrasate.** Bertako emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko eta etxeko garbiketak egiteko. Esperientziaduna. 943 79 60 89

**Arrasate.** Neska gertu interna bezala edo orduka lan egiteko. Atariak garbitzen ere bai. 610 68 81 58

**Arrasate.** Neska gertu interna moduan edo orduka lan egiteko. Atariak garbitzen eta abar. Deitu telefono zenbaki 689 95 12 83 honetara.

**Bergara.** Emakume bergararra gertu arratsaldetan umeak edo nagusiak zaintzeko. Deitu 665 75 41 32 telefonora.

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**10. RELAX**

